



ikus  
pegi

Immigrazioaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de Inmigración

# BAROMETROA

## Donostia / San Sebastián

# 2023

Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak



# Aurkibidea

Sarrera	3
1. Jatorri atzerritarra duten pertsonen etorrera	4
2. Gizarte hartzailean hautemandako ondorioak	21
3. Eskubideak eta zerbitzuak	36
4. Bizikidetzak-ereduak eta harremanetarako espazioak	52
5. Kultura-ereduak mantentzea	86
6. Estereotipoak	99
7. Immigrazio-politika	115
8. Tolerantzia-indizea	130
9. Ondorioak	144



## Fitxa teknikoa

- Landa-azterketaren data: 2023ko iraila
- Egindako inkestak: 400 (Konfiantza maila = % 95,  $Z = 1,96$ , eta errorea = +/- % 4,9).
- Etxez etxeko inkesta pertsonala 18 urtetik gorakoei.
- «Esleipen proporzional» bidez estratifikatutako laginketa, barrutiaren, adinaren eta sexuaren arabeko kuotekin.
- Inkestatuko diren pertsonen hautaketa: Ausazko ibilbideen sistema.

# 1

## **Jatorri atzerritarra duten pertsonen etorrera**

- a. Jatorri atzerritarreko pertsonen presentzia arazotzat hautematea
- b. Jatorri atzerritarreko pertsonen bolumena nola hautematen den

## A) ETORKINEN PRESENTZIA ARAZOTZAT HAUTEMATEA

Euskadiko arazoak (bat-bateko erantzuna, %)



Donostiarrek ez dute ikusten immigrazioa arazo nagusien artean. Donostiarren % 3,0k soilik aipatzen du bat-batean lehenbiziko arazo gisa, eta biztanleriaren % 7,3k soilik uste du immigrazioa dela EAEk duen arazo nagusietako bat.

Bestalde, EAerek alderatuta, Donostian handixeagoa da arazo horren gaineko pertzepzioa (1,4 puntu gehiago).

## A) ETORKINEN PRESENTZIA ARAZOTZAT HAUTEMATEA

### Arazoak Euskadin (bat-bateko erantzuna, %)

	Iparraldeko Barrutia	Hegoaldeko Barrutia	Ekialdeko Barrutia	Mendebaldeko Barrutia	Donostia	EAE
Arazo ekonomikoak	23	49,4	47,8	40,2	38,8	53,6
Etxebizitza	38,5	39,3	19,6	38,1	34,3	21,3
Herritarren segurtasunik eza	28,7	25,8	32,6	20,6	27	14,6
Langabezia	18	27	14,1	26,8	21,3	39,1
Osasuna, osasun-sistema	18	20,2	16,3	20,6	18,8	24,7
Enpleguarekin lotutako arazoak (prekariatatea, soldata, txikiak)	14,8	10,1	10,9	7,2	11	24
Pentsioak	5,7	14,6	12	10,3	10,3	10,9
Politikariak, alderdi politikoak, gobernua	6,6	15,7	5,4	10,3	9,3	9,2
Immigrazioa	7,4	9	9,8	3,1	7,3	5,9
Hezkuntza	4,9	9	4,3	9,3	6,8	6,2
Ustelkeria eta iruzurra	1,6	4,5	7,6	1	3,5	3,1
Arazo sozialak	5,7	2,2	4,3	1	3,5	3,9
Diskriminazioa	1,6	1,1	1,1	3,1	1,8	1,1
Emakumeen aurkako indarkeria	0,8	-	1,1	-	0,5	0,7


Donostiako biztanleriaren arabera, gure arazo nagusien artean ageri dira arazo ekonomikoak (% 38,8), etxebizitza (% 34,3), herritarren segurtasunik eza (% 27,0) eta langabezia (% 21,3). Immigrazioa bederatzigarren arazoa da herritarrek bat-batean erantzuten dutenean (%7,3).

Barrutien arabera, antzekoa da arazo nagusien rankinga, aldakuntzaren batekin. Immigrazioa da bat-batean gutxien aipatzen den arazoetako bat, nahiz eta

Ekialdeko eta Hegoaldeko Barrutietan gehiago hautematen duten arazo gisa –eta dezente gutxiago Mendebaldekoan–. Iparraldeko Barrutiak hiriburu osoaren antzeko pertzepzioa du. EAEko datuekin alderatuta, antzekoa da arazo sailkapena. Baina Donostian arazo batzuek pisu handiagoa dute, hala nola herritarren segurtasunik ezak eta etxebizitzak, eta beste batzuek, berriz, txikiagoa, ekonomiarekin lotutakoek, kasu.

## A) ETORKINEN PRESENTZIA ARAZOTZAT HAUTEMATEA

Arazoak Euskadin (erantzun iradokia, %)



Inkesta egin zaien pertsonei arazoaren katalogo bat aurkezten diegunean eta EAEko hiru garrantzitsuenak iruditzen zaizkienak aukeratu behar dituztenean, immigrazioa bederatzigarren postuan agertzen da, aipamen gehien dituen arazo gisa. Donostiarren % 10,8k adierazten du hori. Aldiz, arazo nagusia –hau da, inflazioa– % 73k aipatzen du.

EAErekiko konparazioak adierazten du iradokitako arazoaren gaineko pertzepzioa handiagoa dela, zehazki 6,1 puntu handiagoa Donostiaren kasuan.

## A) ETORKINEN PRESENTZIA ARAZOTZAT HAUTEMATEA

### Arazoak Euskadin (erantzun iradokia,%)

	Iparraldeko Barrutia	Hegoaldeko Barrutia	Ekialdeko Barrutia	Mendebaldeko Barrutia	Donostia	EAE
Prezioen igoera / Inflazioa / Bizitzaren kostua	67,2	71,9	81,5	73,2	73	64,5
Etxebizitza	50	47,2	34,8	51,5	46,3	28,5
Delinkuentzia	35,2	32,6	48,9	23,7	35	24,9
Langabezia	30,3	24,7	19,6	26,8	25,8	36,6
Osasuna eta Gizarte Segurantzza	15,6	31,5	25	29,9	24,8	35,2
Egoera ekonomikoa	15,6	20,2	17,4	24,7	19,3	28,8
Ingurumena, klima eta gai energetikoak	12,3	15,7	14,1	8,2	12,5	13,9
Immigrazioa	11,5	10,1	16,3	5,2	10,8	4,7
Pentsioak	11,5	9	12	10,3	10,8	17,8
Hezkuntza-sistema	9,8	15,7	5,4	11,3	10,5	11,8
Diskriminazioa	5,7	4,5	8,7	7,2	6,5	6,7
Zergak	1,6	4,5	6,5	6,2	4,5	4,7
Zor publikoa	3,3	-	5,4	2,1	2,8	1,7
Terrorismoa	0,8	-	-	1	0,5	0,2

Iradokitako arazoaren rankinga barrutiz barruti aztertzen badugu, banaketa nahiko antzekoa da inflazioaren, etxebizitzaren, delinkuentziaren, langabeziaren eta osasun eta gizarte-segurantzaren inguruko auzietan. Immigrazioak arazo gisa duen pertzepzioaren kasuan, handiagoa da Ekialdeko Barrutiaren kasuan, eta txikiagoa Mendebaldekoan.

Araoaren ranking hori EAE osokoarekin alderatzen badugu, berriz ere ikusten da etxebizitzarekin eta delinkuentziarekin lotutako auziek pisu handiagoa dutela, eta eremu ekonomikoarekin lotutako arazoaren gainean, berriz, pertzepzio txikiagoa dela.

## A) ETORKINEN PRESENTZIA ARAZOTZAT HAUTEMATEA

Hiru arazo pertsonal nagusiak (%)



Immigrazioa hamaikagarren arazo pertsonala da rankinean: % 3,5ek soilik ikusten du arazotzat, eta % 0,5ek soilik aipatzen du lehen arazo gisa. Eragin pertsonalari dagokionez, hauek dira aipatuenak: arazo ekonomikoak (% 36,8), herritarren segurtasunik eza (% 29), etxebizitza (% 24,8) eta osasuna (% 10,3).

EAErekin alderatuta, donostiarren artean gehiagok hautematen dute immigrazioa arazo pertsonal gisa. Hala ere, oso maila baxuetan mantentzen da pertzepzio hori.

## A) ETORKINEN PRESENTZIA ARAZOTZAT HAUTEMATEA

Donostiarrei pertsonalki eragiten dieten arazoak, barrutiz barruti (%)


	Iparraldeko Barrutia	Hegoaldeko Barrutia	Ekialdeko Barrutia	Mendebaldeko Barrutia	Donostia	EAE
Arazo ekonomikoak	22,1	47,2	53,3	29,9	36,8	55,6
Herritarren segurtasunik eza	27,9	24,7	45,7	18,6	29	18,6
Etxebizitza	24,6	31,5	17,4	25,8	24,8	20,4
Osasuna, osasun-sistema	20,5	27	22,8	22,7	23	29,3
Enpleguarekin lotutako arazoak (prekarietatea, soldata txikiak)	8,2	14,6	16,3	14,4	13	19,7
Pentsioak	4,9	14,6	12	17,5	11,8	15,6
Langabezia	9	9	10,9	11,3	10	18,7
Politikariak, alderdi politikoak, gobernua	7,4	12,4	6,5	7,2	8,3	10,6
Hezkuntza	4,9	5,6	5,4	17,5	8,3	9,6
Arazo sozialak	4,9	5,6	7,6	6,2	6	3,6
Immigrazioa	2,5	2,2	9,8	-	3,5	1,7
Emakumeen aurkako indarkeria	4,9	3,4	-	1	2,5	2,5
Ustelkeria eta iruzurra	0,8	1,1	4,3	2,1	2	3,4
Diskriminazioa	2,5	1,1	2,2	1	1,8	1,4

Gehien eragiten duten arazo pertsonalei buruz galdetzean, ikusten dugu alde nabarmenik barruti batetik bestera. Ekialdeko eta Iparraldeko Barrutietan, esaterako, garrantzi handiagoa ematen zaie arazo ekonomikoek. Azpimarratzekoa da, halaber, Ekialdeko Barrutian herritarren segurtasunik ezak duen garrantzia.

Immigrazioa arazo pertsonaltzat hartzea hutsaren hurrengoa da barruti guztietan, Ekialdeko Barrutian izan ezik (ia % 10ek hartzen du arazo pertsonaltzat). EAeri dagokionez, badira hirian gehiago hautematen diren zenbait arazo, hala nola herritarren segurtasunik eza. Eta beste batzuek, berriz, pisu txikiagoa dute, ekonomiarekin eta enpleguarekin lotutakoek, kasu.

## A) ETORKINEN PRESENTZIA ARAZOTZAT HAUTEMATEA

Arazo pertsonalak eta Euskadikoak (laburpena, “immigrazioa arazoa da”, %)




Immigrazioa ez da arazoa Donostiako herritar gehienentzat. Lehenbiziko eta bat-bateko aipamen gisa, % 3k soilik uste du immigrazioa dela Euskadiko lehen arazoa; eta % 2rentzat soilik, beste arazo batzuekin batera aukeren artean jartzen dugunean. Erantzun guztietatik, hiriko biztanleen % 7,3k baino ez du hartzen bat-batean immigrazioa arazotzat, eta iradokita, berriz, % 10,8k aipatzen du Euskadiko arazo garrantzitsuenen artean.

Gainera, % 0,5ek soilik bizi du arazo pertsonal nagusi gisa, eta % 3,5ek hiru arazo garrantzitsuenen artean. Datu horiek EAEko 2023ko Barometrokoekin alderatuz gero, Donostian handixeagoa da immigrazioaren gaineko pertzepzioa arazo gisa. Hala ere, pertzepzio hori maila baxuetan mantentzen da.

## B) JATORRI ATZERRITARREKO PERTSONEN BOLUMENA NOLA HAUTEMATEN DEN

Jatorri atzerritarra duten biztanleen bolumenaren gaineko pertzepzioa, erroldatutako biztanleriaren datu ofiziala eman aurretik (%)




Donostiarren erdiek baino gehiagok uste dute, datu ofiziala ikusi aurretik, atzerritarren kopurua egokia dela hirian; aldiz, % 39,5ek uste du dezente edo gehiegi direla, eta % 4,1ek bakarrik uste du gutxi edo gutxiegi direla. Datuak EAEkoen berdinak dira ia-ia.

Barrutiz barruti aztertuta, alde nabarmenak ageri dira Ekialdekoaren eta gainerakoen artean. Barruti hartan, % 62k uste du dezente edo gehiegi direla; ehuneko hori ia bikoiztu egiten da gainerakoekin alderatuta.

## B) JATORRI ATZERRITARREKO PERTSONEN BOLUMENA NOLA HAUTEMATEN DEN

Atzerritar jatorriko biztanleriaren bolumena nola hautematen den eta Donostian erroldatutako biztanleriaren benetako kopurua, barrutiz barruti (%)




Oro har, ikusten dugu gaindimentsionatuta dagoela donostiarrek atzerritarren bolumenari buruz duten pertzepzioa. Datu erreala % 13,7 da, eta pertzepzioa, berriz, % 25,1. Alde hori EAEn ere gertatzen da, baina intentsitate txikiagoarekin; izan ere, datu erreala % 12,4 da, eta pertzepzioa, berriz, % 21,4.

Ekialdeko Barrutian ageri da atzerritarren bolumenaren gaineko pertzepzio handiena (% 29,2). Beste muturrean, aldiz, Ekialdeko Barrutia dago (% 19,5). Bestalde, pertzepzioak eta errealitateak Mendebaldeko Barrutian dute antzik handiena. Alderik handiena, berriz, Ekialdekoan.

## B) JATORRI ATZERRITARREKO PERTSONEN BOLUMENA NOLA HAUTEMATEN DEN

Azterritar jatorriko biztanleriaren bolumena nola hautematen den, erroldatutako atzerriko biztanle-kopuruaren datu ofiziala jakinarazi ondotik (%)




Datu ofiziala eman eta gero, bolumenaren gaineko proportzioa aldatu egiten da, eta pertsona gutxiagok uste dute dezente edo gehiegi direla (% 29,0). % 60,8k uste du nahikoa direla, eta % 8,6k bakarrik uste du gutxi edo gutxiegi direla. EAerekin alderatuta, oso antzekoak dira emaitzak.

Barrutien arabera aztertuta, ezberdinak dira emaitzak Ekialdeko Barrutiaren eta gainerakoen artean. Datu ofiziala ezagutu ondotik, barruti horretako biztanleen erdiek uste dute dezente edo gehiegi direla – gainerako barrutietan baino askoz ere portzentaje handiagoa –.

## B) JATORRI ATZERRITARREKO PERTSONEN BOLUMENA NOLA HAUTEMATEN DEN

Hurrengo bost urteetako egoerari begira, **nola jokatuko du immigrazioak EAEn, zure ustez? (%)**




Donostiako biztanleen % 82k uste du immigrazioak gora egingo duela Euskadin datozen bost urteetan. Ehuneko hori nabarmen handiagoa da EAEn 2023ko barometroko datua baino. Donostiako gizarteak –Euskadikoak bezala, oro har– onartzen du migrazio-fenomenoa ez dela errealitate koitunturala, baizik eta hazteko joera izango duen errealitate egonkor bat.

Barrutiz barruti alde txiki batzuk ikusten diren arren, kasu guztietan adierazten dute gora egingo duela haien ustez.

## B) JATORRI ATZERRITARREKO PERTSONEN BOLUMENA NOLA HAUTEMATEN DEN

### Demagun etorkizunean ere etorkinek EAera etortzen jarraitzen dutela.

Zure ustez, nongoa izango da etorkin multzo handiena? Eta bigarren etorkin multzo handiena? Eta hirugarrena? **Donostia (%)**




Euskadira zer jatorritako etorkinak iritsiko ote diren galdetuta, % 52,8k adierazi du haien ustean magrebtarrak etorriko direla, eta, ondoren, Saharaz hegoaldekoak eta latinoamerikarrak (% 15,3 eta % 15, hurrenez hurren). Aipamen guztietan, jatorri horiek dira nagusi. EAeko biztanleen ustean, jatorri horiek berak ugarituko dira gehien; hala ere, Euskadin jende gehixeagok uste du Saharaz hegoaldeko jatorriko biztanleak etorriko direla gehiago.

Migrazio-fluxuek Afrikako biztanleriaren gorakada erakusten badute ere, jatorri latinoamerikarra duten etorkinek jarraitzen dute gehien ugaritzen. Beraz, ikusten dugu alderik migrazio-fluxuen pertzepzioaren eta dinamika errealearen artean.

## B) JATORRI ATZERRITARREKO PERTSONEN BOLUMENA NOLA HAUTEMATEN DEN

Demagun etorkizunean ere etorkinek EAera etortzen jarraitzen dutela.

Zure ustez, nongoa izango da etorkin multzo handiena? Eta bigarren etorkin multzo handiena? Eta hirugarrena? **Iparraldeko Barrutia (%)**




Iparraldeko Barrutian, etorkizunean iritsiko diren etorkinen gaineko pertzepzioa hiri osokoaren antzekoa da.

Aipamen guztiak erreferentziatzat hartuta, % 82k uste dute magrebtarrak izango direla gehien, % 57,4k latinoamerikarrak eta % 54,1ek Saharaz hegoaldeko Afrikakoak.

## B) JATORRI ATZERRITARREKO PERTSONEN BOLUMENA NOLA HAUTEMATEN DEN

Demagun etorkizunean ere etorkinek EAera etortzen jarraitzen dutela.

Zure ustez, nongoa izango da etorkin multzo handiena? Eta bigarren etorkin multzo handiena? Eta hirugarrena? **Hegoaldeko Barrutia (%)**




Hegoaldeko Barrutian, etorkizunean iritsiko diren etorkinen gaineko pertzepzioa hiri osokoaren antzekoa da. Aipamen guztiak erreferentziatzat hartuta, % 82k uste dute magrebtarrak izango direla, % 62,9k latinoamerikarrak eta % 53,9k Saharaz hegoaldeko Afrikakoak.

## B) JATORRI ATZERRITARREKO PERTSONEN BOLUMENA NOLA HAUTEMATEN DEN

### Demagun etorkizunean ere etorkinek EAera etortzen jarraitzen dutela.

Zure ustez, nongoa izango da etorkin multzo handiena? Eta bigarren etorkin multzo handiena? Eta hirugarrena? **Ekialdeko Barrutia (%)**




Ekialdeko Barrutian, etorkizunean iritsiko diren etorkinen gaineko pertzepzioa hiri osokoaren antzekoa da. Aipamen guztiak erreferentziatzat hartuta, % 88k uste dute magrebtarrak izango direla, % 73,9k latinoamerikarrak eta % 57,6k Saharaz hegoaldeko Afrikakoak.

## B) JATORRI ATZERRITARREKO PERTSONEN BOLUMENA NOLA HAUTEMATEN DEN

Demagun etorkizunean ere etorkinek EAera etortzen jarraitzen dutela.

Zure ustez, nongoa izango da etorkin multzo handiena? Eta bigarren etorkin multzo handiena? Eta hirugarrena? **Mendebaldeko Barrutia (%)**



Mendebaldeko Barrutian, etorkizunean iritsiko diren etorkinen gaineko pertzepzioa hiri osokoaren antzekoa da. Aipamen guztiak erreferentziatzat hartuta, % 82,5ek uste du magrebtarrak izango direla, % 63,9k latinoamerikarrak eta % 69,1ek, azkenik, Saharaz hegoaldeko Afrikakoak.


# 2

## **Gizarte hartzailean hautemandako ondorioak**

- a. Ekonomiari buruz
- b. Hizkuntza- eta identitate-gaiei buruz
- c. Ongizateari buruz


## A) EKONOMIARI BURUZ

Etorkinak behar ditugu gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko (%)



Datuek erakusten dute erroturik dagoela immigrazioaren gaineko ikuspegi funtzionalista. Donostiar gehienek ustez, etorkinei esker hobeto funtzionatzen du ekonomiak, pertsona horiek egiten dituzten lanengatik, eta, gainera, etorkinak behar ditugu gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko.


Etorkinei esker, ekonomiak hobeto funtzionatzen du, bertako biztanleek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituzten heinean (%)



Emaitzak EAEkoen oso antzekoak dira. Alabaina, Donostian ehuneko nabarmen handiago batek uste du etorkinak behar direla gure ekonomiako sektore jakin batzuetan lan egiteko.

## A) EKONOMIARI BURUZ

Etorkinak behar ditugu gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko (%)




Gehiengoak uste du etorkinak behar ditugula gure ekonomiaren sektore jakin batzuetan lan egiteko (% 81). Baieztapen hori, gainera, handiagoa da Donostian EAE osoan baino (% 69,8).

Barrutien kasuan, ikusten ditugu ezberdintasun batzuk. Baieztapen horrekiko desadostasun handiena Ekialdeko Barrutian dago (% 17,3), eta ehuneko hori EAEko gainerakoen oso antzekoa da.

## A) EKONOMIARI BURUZ

Etorkinei esker, ekonomiak hobeto funtzionatzen du, bertako biztanleek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituzten heinean (%)




EAE n gertatzen den bezala, Donostiako biztanle gehienek uste dute etorkinei esker ekonomiak hobeto funtzionatzen duela, bertako biztanleek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen baitituzte.

Barrutiz barruti eginiko azterketan, Mendebaldekoan ageri da baieztapen horrekiko adostasun handiena (% 80,4); aldiz, Ekialdeko Barrutiko bizilagunen artean, adostasun epelagoa sumatzen da ekonomian duten eragin positibo horri dagokionez.


## A) EKONOMIARI BURUZ

### Ondorio negatiboak (%)

Oro har, soldatak jaitsi egiten dira bizitzera eta lan egitera etortzen diren etorkinen ondorioz (%)




Etorkinen presentziak areagotu egiten du langabezia Euskadin (%)



Bestalde, Donostiako biztanleria ez dago ados immigrazioak ekonomian eragin negatiboa izatearekin, hala nola soldatak jaistarekin edo langabezia handitzearekin. Donostiako datuak oso antzekoak dira EAE osokoekin alderatuz gero.

## A) EKONOMIARI BURUZ

Oro har, soldatak jaitsi egiten dira bizitzera eta lan egitera etortzen diren etorkinen ondorioz (%)




Donostiar gehienei ez zaie iruditzen etorkinak iristeak soldatetan eraginik izango duenik, hala uste dute, behinik behin, hirian inkesta egin zaien pertsonen hiru laurdenek.

Barrutien kasuan, ikusten ditugu ezberdintasun batzuk. Ekialdeko Barrutian, nabarmenezkoa da immigrazioa soldaten jaitsierarekin lotzen duten pertsonen ehunekoa (% 29,4). Beste muturrean, Mendebaldeko Barrutia ageri da, bizilagunen % 5,2 baino ez baitago ados baieztapen horrekin.

- ED/EE
- Ados ez
- Zalantzan
- Ados

## A) EKONOMIARI BURUZ

Etorkinen presentziak areagotu egiten du langabezia Euskadin (%)




Donostiar gehienak ez daude ados immigrazioaren ondorioetako bat langabezia handitzea dela esatearekin. Berriz ere, iritzi negatiboak Ekialdeko Barrutian bizi diren pertsonen artean sumatzen dira, % 34,8 ados baitaude baieztapen horrekin.

Beste muturrean, Mendebaldeko Barrutia dago: apenas dagoen immigrazioak langabezia handitzen duela uste duen pertsonarik (% 2,1).

## B) HIZKUNTZA- ETA IDENTITATE-GAIEI BURUZ


Atzerriko immigrazioak euskal gizartean dituen ondorioak (%)



Immigrazioak hizkuntza- eta identitate-gaietan dituen ondorioei dagokienez, emaitzek erakusten dute Donostiako gizarteak ez duela uste migrazio-fenomenoa arazo denik alderdi horietan. EAEko barometroetan ikusten den bezala, Donostiako biztanle gehienek ez dute uste jatorri atzeritarreko biztanleen etorrerak euskal nortasuna galtzea eragingo duenik, ezta euskal nazionalismoaren nahiak geldiaraziko dituenik ere. Hizkuntzari dagokionez, ez da uste immigrazioak euskararen garapena geldiaraz dezakeenik, ezta gaur egun gehiengo den eremuetan euskararen erabilera eta garapena murriztea ekar dezakeenik ere.

## B) HIZKUNTZA- ETA IDENTITATE-GAIEI BURUZ


Etorkinen etorrerak euskararen garapena geldiaraziko du (%)



Donostiar gehienek ez dute uste immigrazioak euskararen garapena geldiaraziko duenik: % 71,8 ez dago ados baieztapen horrekin, % 17,3 ados dago eta % 2,5 duda-mudan. Zifra horiek EAEkoaren antzekoak dira, nahiz eta autonomia-erkidego osoan adostasun-maila % 14,4ra jaitsi. Ekialdeko eta Iparraldeko Barrutietan gehixeago hazi da euskararen garapena geldotzearen beldur diren pertsonen ehunekoa (% 25 eta % 19,7, hurrenez hurren). Aldiz, beldur hori txikixeagoa da Mendebaldeko eta Hegoaldeko Barrutietan (% 11,3 eta % 12,4, hurrenez hurren).

## B) HIZKUNTZA- ETA IDENTITATE-GAIEI BURUZ


Etorkinen etorrerak euskararen erabilera murriztuko du gaur euskara nagusi den Euskadiko eremuetan (%)



Immigrazioak euskararen duen eraginari buruzko kezkarekin jarraituz, % 69,3k ez du uste erabilera murriztuko denik gaur egun euskara nagusi den eremuetan, % 15,6 ados dago eta % 8, berriz, duda-mudan. Zifra horiek EAEkoen oso antzekoak dira. Ekialdeko Barrutian gehiago dira gaur egun euskara nagusi den eremuetan euskararen erabilera murriztearen beldur direnak (% 23,9).

## B) HIZKUNTZA- ETA IDENTITATE-GAIEI BURUZ

Etorkinen etorrerak euskal identitatea galtzen lagunduko du (%)




Donostiar gehienek ez dute uste immigrazioak euskal identitatea galtzen lagun dezakeenik: % 76,5 ez dago ados baieztapen horrekin, % 11 ados dago eta % 5,3 berriz, zalantzan. Zifra horiek EAE osokoen antzekoak dira. Barrutiz barruti, Ekialdekoan gehiago kontzentratzen da immigrazioaren ondorioz euskal identitatea galtzearen beldur diren pertsonen portzentajea (% 27,2).

- ED / EE
- Ados ez
- Ez ados, ez kontra
- Ados

## B) HIZKUNTZA- ETA IDENTITATE-GAIEI BURUZ

Etorkinen etorrerak euskal nazionalismoaren nahiak geldiaraziko ditu (%)




Lau donostiarretik hiruk ez du uste immigrazioak kalte egin diezaiokeenik euskal nazionalismoaren nahiak geldiarazteari. EAEn kasuan, apur bat handiagoa da baieztapen horrekiko adostasuna. Ekialdeko Barrutian, handixeagoa da immigrazioak euskal nazionalismoaren nahiak geldiaraziko dituela uste dutenen portzentajea (% 15,2).

Bestalde, barruti horretan eta Hegoaldekoan ez dakiten/erantzuten ez duten pertsonen portzentaje handi bat dago (% 21,7 eta % 21,3, hurrenez hurren).

## C) ONGIZATEARI BURUZ


Immigrazioak euskal gizartean dituen ondorio positiboak edo negatiboak buruzko pertzepzioa: 0 puntutik (negatiboak) 10 puntura (positiboak)



Donostiarrei immigrazioak euskal gizartean dituen eraginei buruz galdetzen zaienean (0 oso negatiboa, eta 10, berriz, oso positiboa), 6,16 da batez besteko nota. EAEko datuekin alderatuta, Donostian apur bat okerragoa da balorazioa. Ekialdeko Barrutian lortzen du puntuazio txikiena, batez besteko nota nahiko bat baino ez da (5,5). Gainerako barrutietan, antzeko samarra da batezbestekoa.

## C) ONGIZATEARI BURUZ

Jatorri atzerritarreko emakumeen etorreraren ondorio positiboak edo negatiboak buruzko pertzepzioa: 0 puntutik (negatiboak) 10 puntura (positiboak)




Otik 10erako eskala batean – non 0 erabat negatiboa baita, eta 10, berriz, erabat positiboa –, Donostiako biztanleek pertzepzio positiboa dute jatorri atzerritarreko emakumeen etorreraren ondorioei buruz (8,03 puntu).

Emakume etorkinek ongizate kolektiboan duten rolaen aitortzen hori, alabaina, EAE osokoa baino txikixeagoa da. Barrutiz barruti, balorazioa ez da hain positiboa Ekialdeko eta Hegoaldeko Barrutietan, eta batez besteko puntuazioa ez da oso ona (6,5 eta 6,7, hurrenez hurren).

## C) ONGIZATEARI BURUZ

Europara etorkinak iristeak benetan konpon ditzake Europako biztanleria zahartzearen ondorioz sorturiko arazoak (%)



Oro har, donostiarrek uste dute atzerriar jatorriko pertsonen etorrerak eragin positiboa izan dezakeela Europako (eta Euskadiko) demografia zahartuan.


Hala, donostiarren % 76,8ren aburuz immigrazioak eragin positiboa izan dezake EAEko eta Europako biztanleriaren hazkundera, eta % 7,3k soilik uste du kontrakoa. Datu horiek bat datoz EAEko guztizkoarekin. Barrutiz barruti, ideia horrekin adostasun handiagoa dago Mendebaldeko (% 84,5) eta Iparraldeko (% 82) barrutietan. Aldiz, ideia horrekiko adostasun maila txikiagoa da Hegoaldekoan (% 65,1).



# 3

## **Eskubideak eta zerbitzuak**


## Lehentasuna eskubideei heltzerakoan (%)



Gaur egun, Donostiako biztanleriaren % 66,5ek uste du pertsona guztiek, jatorria edozein dela ere, berdinak izan behar dutela eta aukera berberak izan behar dituztela osasun-laguntza, gizarte-laguntzak, babes ofizialeko etxebizitzak eta halako zerbitzuak eskuratzeko. Aldiz, % 29,2k uste du bertakoek izan behar dutela lehentasuna eskubide eta zerbitzu horietan. Ehuneko hori EAE osokoa baino handixeagoa da (% 29,2).


Barrutiz barruti, azpimarratzekoa da Mendebaldeko Barrutian ia 10etik 8k uste dutela etorkinek eskubide berdinak izan behar dituztela. Planteamendu horren aurrean, Ekialdeko Barrutiko biztanleen erdiek baino gehiagok (% 52,2) uste dute bertakoek izan behar dutela eskubide horiek eskuratzeko lehentasuna, jatorri atzeritarreko biztanleen aurretik.

## Etorkinek ez lukete izan behar Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko aukerarik, bertakoek bakarrik jaso beharko lukete (%)



Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) eskuratzeari dagokionez, hamar donostiarretik zazpi dio laguntza horrek ez duela izan behar bertakoentzat bakarrik. Baieztapen horrekin ados ez dauden pertsonen ehunekoa handiagoa da EAE osoan erregistratutakoa baino. Barrutiz barruti eginiko azterketak erakusten digunez, Ekialdekoan biltzen da DSBEa bertakoen eskubidea soilik izan beharko lukeela uste dutenen portzentaje handiagoa (% 34,8). Beste muturrean, Iparraldeko eta Mendebaldeko Barrutietako biztanle gehienek uste dute etorkinek eskura izan behar dutela babes sozialeko mekanismo hori.

## Eskubideak baliatzea eta administrazio-egoera (%)




Euskal gizartearen antzera, atzeritarrek eskubideak eta zerbitzuak baliatzeari dagokionez, Donostiako biztanleria termino unibertsalistetan kokatzen da osasunari, hezkuntzari eta, neurri txikiagoan, laguntza juridikoari dagokienez.

Hala ere, beste eskubide batzuei buruz ari garenean (laguntza sozialak, senide gertukoena elkartzea, babes ofizialeko etxebizitzak edo boto-eskubidea), herritar gehienek uste dute administrazio-egoera erregularrean dauden pertsonak bakarrik dutela eskubide hori.

## Zure ustez,

Euskadin bizi diren etorkinek bertakoen baldintza berberetan eskuratu beharko lituzkete eskubide hauek?

### Osasun-laguntza (%)




Donostiarren % 82,5ek uste du eskubide unibertsala dela etorkinek osasuna eskura izatea, edozein izanik ere haien administrazio-egoera; % 16,8k, berriz, uste du administrazio-egoera erregularrean dauden etorkinek soilik eskura dezaketela osasun-laguntza. Datu horiek EAE osokoen oso antzekoak dira. Barrutiz barruti, posizio unibertsalista handiagoa da Mendebaldekoan (% 90,7) eta txikiagoa, ostera, Ekialdekoan (% 69,6).

## Zure ustez,

Euskadin bizi diren etorkinek bertakoen baldintza berberetan eskuratu beharko lituzkete eskubide hauek?


### Hezkuntza (%)



Hezkuntzari dagokionez, Donostian bizi diren pertsonen % 79,8k uste du eskubide unibertsala dela etorkinek hezkuntza eskuratu ahal izatea, haien administrazio-egoera edozein dela ere; aldiz, % 19,5ek uste du administrazio-egoera erregularrean dauden etorkinek baino ezin dutela sartu. Emaitza horiek EAE osokoen oso antzekoak dira. Barrutiz barruti, posizio unibertsalista handiagoa da Iparraldeko eta Mendebaldeko Barrutietan (% 88,5 eta % 87,6, hurrenez hurren), eta nabarmen txikiagoa Ekialdekoan (% 65,2).

## Zure ustez,

Euskadin bizi diren etorkinek bertakoen baldintza berberetan eskuratu beharko lituzkete eskubide hauek? **Laguntza juridikoa (%)**




Laguntza juridikoari dagokionez, Donostian bizi diren pertsonen % 62,3k uste du eskubide unibertsala dela etorkinek laguntza juridikoa jasotzeko aukera izatea, edozein izanik ere haien administrazio-egoera; % 28,8k uste du, ordea, administrazio-egoera erregularrean dauden etorkinek bakarrik eskura dezaketela. EA Erekin alderatuta, Donostian pisu txikiagoa du jarrera unibertsalistak. Barrutiz barruti, posizio unibertsalista handiagoa da Iparraldekoan (11 puntu gehiago hiri osoan baino), eta kontrako muturrean Ekialdeko Barrutia ageri da, erdiek baino gutxiagok (% 43,5) baitute posizio unibertsalista eskubide horri dagokionez –era berean, ehuneko handi bat ez da posizionatzen–.

## Zure ustez,

Euskadin bizi diren etorkinek bertakoen baldintza berberetan eskuratu beharko lituzkete eskubide hauek?


### Gizarte-laguntzak (%)



Gizarte-laguntzen kasuan, jarrera aldatu egiten da. Donostian bizi diren pertsonen erdiek baino gehiagok legezko tasunari heltzen dio etorkinek gizarte-laguntzak jaso ahal izateko; % 34,3k, berriz, jarrera unibertsalista aukeratzen du. Datuak EAEkoen antzekoak dira. Barrutiz barruti, legezko tasunaren aldeko posizioa handiagoa da Ekialdeko eta Hegoaldeko Barrutietan, eta Iparraldeko eta Mendebaldekoan, aldiz, handiagoa da posizio unibertsalista.

## Zure ustez,


Euskadin bizi diren etorkinek bertakoen baldintza berberetan eskuratu beharko lituzkete eskubide hauek? **Senide gertukoena elkartzea (%)**



Senide gertukoena elkartzeko eskubidearen kasuan, legezketasunaren aldeko joera da nagusi Donostian bizi diren biztanleen artean. Hamar pertsonatik seik dio legezketasunari jarraitu behar zaiola etorkinek senideak elkartu ahal izateko. Hamarretik hiruk, berriz, jarrera unibertsalista dute horri dagokionez. Emaitza horiek EAEkoen antzekoak dira. Barrutiz barruti aztertuz gero, ikusten da posizio unibertsalista ohikoagoa dela Iparraldeko Barrutian (% 44,3) eta Mendebaldekoan (% 38,1). Aldiz, legezketasunari erreparatzea ohikoagoa da Ekialdeko eta Hegoaldeko Barrutietan (% 70,7 eta % 69,7, hurrenez hurren). Ekialdeko Barrutian, gainera, handiagoa da posizio murriztaileenaren pisua (% 9,8).

**Zure ustez,**

Euskadin bizi diren etorkinek bertakoen baldintza berberetan eskuratu beharko lituzkete eskubide hauek? **Babes ofizialeko etxebizitzak (%)**




Babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeari dagokionez, Donostian bizi direnen % 57,3k adierazten du etorkinek legez egon behar dutela babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratu ahal izateko, eta % 28,3k, berriz, posizio unibertsalista du horri dagokionez. EA Erekin alderatuta, txikixeagoa da jarrera unibertsalista. Barrutiz barruti, posizio unibertsalista handiagoa da Iparraldeko eta Mendebaldeko Barrutietan (% 37,7 eta % 36,1, hurrenez hurren).

Ekialdeko Barrutian, handiagoa da posizio murriztaileena aukeratzen duten pertsonen portzentajea (% 19,6), baita posizionatzen ez direnen ehuneko ere (% 20,7).


**Zure ustez,**

Euskadin bizi diren etorkinek bertakoen baldintza berberetan eskuratu beharko lituzkete eskubide hauek? **Boto-eskubidea (%)**



Botoa emateko eskubideari dagokionez, legezko egoeraren posizioak du pisurik handiena Donostian bizi diren biztanleen artean. Donostiarren % 61,5ek legezko kotasunari erreparatzen dio etorkinek boto-eskubidea baliatu ahal izateko; % 22,5ek, berriz, jarrera unibertsalista aukeratzen du, eta % 8,5ek, berriz, posizio murriztaileena. EA Erekin alderatuta, pixka bat txikiagoa da posizio unibertsalistaren pisua.


Barrutiz barruti, Ekialdekoan eta Hegoaldekoan ageri dira jarrera itxienak. Ekialdeko Barrutian, gainera, pisu handiagoa dute posizio murriztaileena duten pertsonen eta posizionatzen ez direnen. Iparraldeko eta Mendebaldeko Barrutietan, hiri osokoa baino 10 puntu handiagoa da posizio unibertsalista.

**Zure ustez,**Euskadin bizi diren etorkinek doan izan **beharko lituzkete zenbait zerbitzu? (%)**


Donostian bizi diren biztanle gehienek uste dute etorkin guztiek doan jaso beharko lituzketela Lanbide Heziketako ikastaroak (% 76), gaztelania-eskolak (% 72) eta euskara-eskolak (% 59). Bestalde, % 41ek soilik uste du doan jaso beharko lituzketela haien ama-hizkuntzako eskolak, eta beste % 34,5ek uste du etorkinek ez dutela izan behar eskubiderik zerbitzu horiek doan eskuratzeko.

## Zure ustez,


Euskadin bizi diren etorkinek doan izan beharko lituzkete **Lanbide Heziketako ikastaroak? (%)**




Donostian bizi diren biztanle gehienek uste dute pertsona guztiak izan behar dutela (% 76) Lanbide Heziketako ikastaroak doan eskuratzeko aukera. Bestalde, % 26,8k uste du egoera erregularizatuan daudenek soilik izan beharko luketela sarbidea. Jarrera unibertsalista ia 7 puntu handiagoa da EAE osoko datuekin alderatuta. Barrutiz barruti, Ekialdekoan handiagoa da legezketasunaren alde dauden edo posizio murriztaileagoa duten pertsonen pisua gainerako barrutietan baino.

**Zure ustez,**Euskadin bizi diren etorkinek doan izan **beharko lituzkete gaztelania-eskolak? (%)**

Donostian bizi diren biztanle gehienek (% 72) uste dute pertsona guztiek izan behar dituztela doan gaztelania-eskolak. Bestalde, % 20,0k uste du erregularizatutakoek soilik izan beharko luketela horretarako sarbidea, eta % 5,5ek uste dute sekula ezetz. Emaitza horiek EAEkoen antzekoak dira. Barrutiz barruti, Hegoaldeko eta Mendebaldeko Barrutietan ageri dira posizio tolerantteenak; horietan, pertsonen % 82 eta % 80,4 posizio unibertsalistan daude, hurrenez hurren. Beste muturrean dago Ekialdeko Barrutia: % 28,3k uste du erregularizatutako pertsonen soilik izan beharko luketela sarbidea, eta % 16,3k uste du etorkinek ez dutela eskubide hori izan behar.

**Zure ustez,**Euskadin bizi diren etorkinek doan izan beharko **lituzkete euskara-eskolak?** (%)

Euskara-eskolen kasuan, errealitatea antzekoa da, baina jarrera murriztaileek pisu handiagoa dute. Donostiar gehienek uste dute (% 59) denek izan behar dituztela doan eskura euskara-eskolak. Alabaina, % 26,8k uste du erregularizatutako pertsonentzat soilik beharko luketela, eta % 8,8k uste du halakoak ez direla sekula atzerriarrentzat. Jarrera toleranteena pixka bat txikiagoa da Donostian, EAE osoarekin alderatuta. Barrutiz barrutiko azterketan, posizio unibertsalistak pisu handiagoa du Mendebaldekoan (% 69,1) eta Iparraldekoan (% 66,4). Beste muturrean ageri da Ekialdeko Barrutia: lau pertsonatik batek uste du etorkinek ez dutela eskubide hori izan behar.

**Zure ustez,**Euskadin bizi diren etorkinek doan izan beharko **lituzkete beren ama-hizkuntzako eskolak?** (%)


Ama-hizkuntzako eskolei dagokienez, Donostiako biztanleak nahiko banatuta daude: % 41ek uste dute guztientzako doako zerbitzua izan behar duela horrek, eta % 34,5ek, aldiz, uste du eskola horiek ez luketela izan behar doan inorentzat. Bestalde, % 15,3k uste du erregularizatutako etorkinentzat bakarrik izan behar dutela doan. Datu horiek EAE osokoan antzekoak dira. Iparraldeko eta mendebaldeko Barrutietan biztanle gehienek jarrera unibertsalista aukeratzen dute (% 61,5 eta % 51,5, hurrenez hurren); Ekialdeko eta Hegoaldeko Barrutietan, berriz, posizioak nabarmen murriztaileagoak dira, eta barruti horietan bizi diren biztanleen erdiek baino gehiagok uste dute etorkinek ez luketela eskuratu behar doan eskolarik beren ama-hizkuntza ikasteko.

# 4

## **Bizikidetza-ereduak eta harremanetarako espazioak**


## Udalerriko edo auzoko bizikidetzeta-giroa eta harremanak

Otik (oso txarra) 10era (bikaina) bitarteko puntuazioa



Otik 10era bitarteko eskalan, Donostiako auzoetako bizikidetzeta- eta harreman-giroaren pertzepzioak puntuazio ona lortu du: 6,31 puntu, hain zuzen ere. Zifra hori txikixeagoa da EAEko batezbestekoa (6,77 puntu) baino. Barrutiz barruti, hiriko batezbestekoaren gainetik eta pertzepzio positiboagoarekin ageri dira Iparraldeko eta Mendebaldeko Barrutiak (6,55 eta 6,45 puntu, hurrenez hurren). Hegoaldeko Barrutian, ordea, Donostiako batezbestekoa baino puntu erdi txikiagoa da puntuazioa, nahiz eta aise gainditzen duen han ere.

## Euskal herritarren eta atzerriko jendearen arteko harremanak, zure ustez, hobera egin du, txarrera egin du, edo duela urtebete bezalakoa da? (%)




EAEko eta atzerriko biztanleen arteko harremanak berdin jarraitzen du Donostiako biztanleriaren % 62,8ren aburuz. EAERekin alderatuta, nabarmen handiagoa da okerrera egin duela uste dutenen pisua: % 27,5 Donostian, eta % 12,8 EAE osoan. Ekialdeko Barrutian, okerrera egin duela uste dutenen pisua (% 34,8) handiagoa da hiri osoan baino.

- ED / EE
- Okerrera egin du
- Berdin mantentzen da
- Hobera egin du

## Bizikidetzaren ereduak. Balorazioa (%)

■ Ados ■ Ez ados, ez kontra ■ Ados ez ■ ED / EE




Donostiako biztanle gehienek (% 93,8) uste dute hobe dela guztiok –etorkinek zein bertakoek– harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea. Bestalde, hamar donostiarretik zortzik uste du beste talde etniko batzuetako jatorri atzerritarreko etorkinek aberastu egiten dutela Euskadiko kultura-bizitza.

Era berean, Donostian bizi direnen ia erdiek ez dute uste hobea denik pertsona guztiok ohitura eta tradizio berberak izatea. Aldiz, beste % 39,3 ados dago baieztapen horrekin.

Donostiarren ia hiru laurdenek (% 73,1) ez dute uste jatorri atzerritarreko pertsonen erlijio-praktikak arriskuan jartzen dutenik euskal gizartearen bizimodua.


## Euskal gizartearentzat hobe da guzti-guztiok –immigranteek zein bertakoek– harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea (%)



Bistakoa dirudi Donostiako biztanleen aburuz Euskadiko hizkuntzak jakitea dela kulturarteko bizikidetzaren eta aniztasunaren oinarria: % 93,8k uste du hori. Datu horiek EAEkoen antzekoak dira, baina kasu horretan txikixeagoa da adostasuna (% 90,3).


Konbentzimendu hori are handiagoa da Mendebaldeko eta Hegoaldeko Barrutietan.

## Beste talde etniko batzuetako etorkinek aberastu egiten dute Euskadiko bizitza kulturala (%)




Donostiarraren artean, gehienek uste dute beste herrialde eta kultura batzuetako pertsonak etortzeak aberastu egiten duela euskal bizitza kulturala; zehazki, % 80,5 bat dator ideia horrekin. Adostasun-portzentaje hori EAE osoan atzemandakoa baino handiagoa da. Barrutiz barruti, Mendebaldeko (% 96,9) eta Hegoaldeko (% 86,5) barrutietan daude immigrazioak bizitza kulturala aberastu egiten duela uste duten herritar gehien. Aldiz, Ekialdeko Barrutian handiagoa da aberastasun kultural horrekin ados ez daudenen pisua (% 20,7).

## Euskal gizartearentzat hobe da bertan bizi garen guztiok ohitura eta usadio berberak izatea (%)



EAEko datuek erakusten dutena ez bezala, Donostiako biztanleak ez daude erabat ados ohitura eta tradizio berberak dituen gizarte bat hobea dela dioen ideiarekin. % 39,3k uste du hori; % 46,5 ez dago ados, eta % 13,3, berriz, duda-mudan. Barrutiz barruti, Ekialdekoan (% 55,5) eta Iparraldekoan (% 45) handiagoa da ohiturak eta tradizioak partekatzearekin ados dagoen biztanleriaren ehunekoa. Alabaina, Mendebaldeko eta Hegoaldeko Barrutietan nabarmen handiagoa da ados ez daudenen pisua (% 62,9 eta % 66,3, hurrenez hurren).


## Immigranteen erlijio-jarduerek arriskuan jartzen dute gure bizimodua (%)



Herritar gehienek (% 73,1) ez dute uste etorkinen erlijio-praktikak gure bizimodua arriskuan jartzen dutenik. Bestalde, biztanleriaren % 17,6k zenbait beldur adierazten ditu. EAEko emaitzekin alderatuta, Donostian pisu handiagoa dute etorkinen erlijio-praktikak arriskutsutzat jotzen ez dituen biztanleek. Barrutiz barruti, Ekialdekoan biztanle gehiagok dute beldurra erlijio-praktika berriek gure bizimoduan izan ditzaketen ondorioei loturik. Bestalde, Mendebaldeko Barrutian inkesta egin duten ia pertsona guztiak ez daude ados baieztapen horrekin.

- ED / EE
- Ados ez
- Ez ados, ez kontra
- Ados


## Bizikidetzaren ereduak. Aniztasunaren kudeaketaren balorazioa (%)



Donostiako gizarte gehienaren ustean, elkarbizitzarako ahaleginak *a priori* partekatua izan behar du (% 79,8). Hala ere, gehiengoaren iritziz, etorkinek neurri handiagoan egin behar dute egokitze ahalegina (% 73,3). Izan ere, konparazioz, oso jende gutxiri iruditzen zaio ahalegin hori bertakoek egin behar dutenik (% 38,3).

Aniztasunaren kudeaketa horretan sakonduz, Donostian bizi diren pertsonen % 60k uste du etorkinek utzi egin behar dituztela gure legeriarekin gatazkan dauden alderdi erlijiosoak edo kulturalak (% 60,0).


## Bizikidetzaren hobetzeko, guztiok egin behar dugu ahalegina, bai etorkin atzeritarrek, bai hemengoek (%)



Hamar donostiarretik ia zortzik onartzen dute kulturen arteko bizikidetzaren esparrua; % 9,8, aldiz, kontra daude, eta % 9,8 ez hotz ez bero. Emaitzak EAE osokoen nahiko antzekoak dira. Barrutiz barruti, baieztape horrekiko adostasunak pisu handiagoa du Mendebaldeko, Hegoaldeko eta Iparraldeko Barrutietan.

Aldiz, Ekialdekoan bizi diren lau pertsonatik bat ez dago ados integratzeko ahalegina partekatu beharrekin.


## Euskadin bizikidetza hobea lortzeko, etorkinek gure ohiturak eta usadioak barneratzen ahalegindu beharko lukete (%)



Ikuspegi asimilazionistarekin bat etorritik, Donostian % 73,3k uste du etorkinek gure ohiturak eta usadioak barneratzen ahalegindu behar dutela. % 13,8 horren aurka dago, eta % 12,5, berriz, ez ados ez kontra. EAEn, handixeagoa da baieztapen horrekiko adostasun-maila. Barrutiz barruti, ikuspegi asimilazionista handiagoa da Hegoaldekoan (% 79,8) eta Mendebaldekoan (% 75,2).

Kontrako kasuan, Iparraldeko Barrutian dago desadostasuna duten pertsonen pisurik handiena (% 21,3). Ekialdeko Barrutian ageri da berdintsu zaien pertsonen pisu handiena (% 18,5).


## Erabat onartuak izateko, etorkinek uko egin behar diete gure legeriarekin bat ez datozen alderdi kultural edo erlijiosoak (%)



Baieztapen horrekiko adostasun-maila da gizartean ageri den integrazioaren ikuspegi asimilazionistaren beste elementu bat. Donostian, hamar pertsonatik seik uste du etorkinek utzi egin beharko lituzketela gure legeriarekin gatazkan dauden alderdi erlijiosoak edo kulturalak. % 32,3 aurka agertu da, eta % 6, berriz, ez aurka ez alde. EA Erekin alderatuta, ikuspegi asimilazionistak pisu txikiagoa du.


Barrutiz barruti, baieztapen horrekiko adostasunak pisu handiagoa du Ekialdeko Barrutian (% 86,9) eta, neurri txikiagoan, Hegoaldekoan (% 68,5). Kontrako kasuan, desadostasun-maila handiagoa dago Mendebaldeko (% 52,6) eta Iparraldeko (% 46,7) Barrutietan.

## Euskadin bizikidetza hobetzeko, hemengoek ahaleginu beharko lukete etorkinen ohiturak eta usadioak ezagutzen eta horietara egokitzen (%)



Ilido beretik, donostiarren % 44,3 ez dago ados bertako biztanleek etorkinen ohitura eta tradizioetara egokitzeko ahalegina egin behar izatearekin. Alabaina, % 38,3 horren alde dago, eta % 16,5, berriz, ez ados ez kontra. EAE osoan, emaitzak oso antzekoak dira. Barrutiei dagokienez, Hegoaldeko Barrutiko biztanle gehienek (% 61,8) ez dute uste bertakoek egin behar dutenik ahalegin hori. Bestalde, Iparraldeko eta Mendebaldeko Barrutietan handixeagoa da ahalegin hori egitearen alde daudenen pisua (% 46,7 eta % 46,4, hurrenez hurren).


## Euskal herritartzat hartu behar dira Euskadin jaiotako jatorri atzerritarreko pertsonen seme-alabak (%)



Azken hamarkadetako migrazio-fluxuen ondorioz, gero eta gehiago dira guraso atzerritarrak dituzten euskaldunak, hau da, jatorri atzerritarreko pertsonen seme-alabak, Euskadin jaiotak. Haien integrazio-prozesuari buruz galdetuta, Donostiako gizartearen gehiengoak (% 89,8) uste du eskubide osoko euskal herritarrak direla guraso atzerritarrak dituzten eta Euskadin jaio diren pertsona horiek. Emaitzak EAEkoen oso antzekoak dira. Barrutiz barruti, oso antzekoak dira pertzepzioak. Ekialdeko Barrutian handixeagoa da euskal herritartzat ezin direla hartu dioten ehunekoa (% 15,2).


■ ED / EE ■ Ez ■ Bai

## Jatorri atzerritarreko pertsonen seme-alabei dagokienez –Euskadin jaioak–, baliteke arazoak izatea etorkizunean, hamabost edo hogeitau urte barru (%)




Guraso atzerritarrak dituzten euskal herritar horiekin jarraituz, donostiarren erdiek baino gehiagok (% 51,5) ez dute uste etorkizunean gatazkarik sortuko denik aniztasun horren kudeaketa sozialari dagokionez. % 31,3k uste du izango direla arazoak arrazoi horregatik, eta % 13,3k, azkenik, ez du argi. EAE osoari dagokionez, datuak nahiko antzekoak dira. Barrutiz barruti, ikuspegi pesimistagoa antzeman dugu Ekialdekoan: pertsonen erdiek baino gehiagok uste dute gatazka izango direla gai horrekin lotuta. Mendebaldeko Barrutian, aldiz, pisu handiagoa dute arazorik ez dela izango uste duten pertsonen (% 72,1).

## Nolakoak iruditzen zaizkizu jatorri atzerritarreko pertsonak, euskaldunekin alderatuta? (%)



Bertako biztanleria etorkinekin alderatzen denean identitate-ezaugarri estereotipatuei dagokienez, gehienek uste dute gehienetan berdinak direla (pertsona zintzoak, atseginak eta langileak). Matxismoa da salbuespena: inkesta egin zaien Donostiako biztanleen % 50,5ek uste du atzerritar jatorriko pertsonak matxistagoak direla bertakoak baino.


## Nolakoak iruditzen zaizkizu jatorri atzerritarreko pertsonak, euskaldunekin alderatuta? Gutxi-asko zintzoak (%)



Zintzotasunari dagokionez, Donostiako biztanleek donostiarrak bezain zintzoak ikusten dituzte atzerritarrek (% 88). % 8,3k uste dute zintzotasun txikiagoa dutela eta % 0,3k, azkenik, zintzoagoak direla. Emaitza horiek EAEkoen nahiko antzekoak dira.


Barrutiz barruti, nahiz eta biztanleriak antzera pentsatzen duen, Ekialdekoan handixeagoa da (% 18,5) zintzotasun gutxiago dutela diotenen pisua.

## Nolakoak iruditzen zaizkizu jatorri atzerritarreko pertsonak, euskaldunekin alderatuta? Gutxi-asko atseginak (%)




Inkestatutako biztanleen aburuz, atzerritarrak donostiarrek bezain atseginak dira (% 85,5); % 6,3k baino ez dute uste zakarragoak direnik, eta % 6,5ek uste du, azkenik, atseginagoak direla atzerritarrak. Emaitza horiek EAEkoen antzekoak dira. Barrutiz barruti, nahiko antzekoak dira pertzepzioak.

## Nolakoak iruditzen zaizkizu jatorri atzerritarreko pertsonak, euskaldunekin alderatuta? Gutxi-asko langileak (%)



Donostiarrek, orobat, bertakoak bezain langile ikusten dituzte atzerritarrek (% 85); % 10ek baino ez du uste alferragoak direnik, eta % 2,3k, azkenik, langileagotzat jotzen ditu. Emaitza horiek EAEkoen antzekoak dira. Barrutiz barruti, nahiko antzekoak dira pertzepzioak.


## Nolakoak iruditzen zaizkizu jatorri atzerritarreko pertsonak, euskaldunekin alderatuta? Gutxi-asko matxistak (%)



Matxismoaren kasuan, nabarmen aldatzen da pertzepzioa. Donostiako biztanleek donostiarrek baino matxistagotzat ikusten dituzte atzerritarrak (% 50,5): ehuneko hori EAE osokoa baino nabarmen txikiagoa da. Barrutiz barruti, atzerritarrak matxistago izatearen pertzepzioa hedatuago dago Ekialdeko Barrutian (% 62).


## Nazionalitate nagusien integrazio-maila

DONOSTIA



Donostiako biztanleei jatorri bakoitzak duen integrazio-mailari buruzko pertzepzioaz galdetzean, ikusten dugu integrazio-mailari buruzko pertzepzioa handiagoa dela antzik handiena dutenen edo kulturalki hurbilen dituztenen kasuan. Hori horrela, Donostiako gizarteak integratuago ikusten du Europako edo Latinoamerikako biztanleria. Beste muturrean ageri dira Magrebetik edo Asiatik etorritako pertsonak (4,14 eta

EAE




4,81 puntuko batez bestekoa, hurrenez hurren), integrazio-maila txikiena duten biztanle gisa.

Eskala EAEkoaren oso antzekoa da, baina Donostian, oro har, txikixeagoak dira integrazio-pertzepzioaren batezbestekoak.


## Nazionalitate nagusien integrazio-maila

0 puntutik (integraziorik ez) 10 puntura (integrazio handia) bitarteko eskala

IPARRALDEKO BARRUTIA



MENDEBALDEKO BARRUTIA




Iparraldeko eta Mendebaldeko Barrutietan, oro har, hiri osokoak baino handixeagoak dira integrazio-pertzepzioaren batezbestekoak. Iparraldeko Barrutiaren kasuan, Maroko, Aljeria eta Magreb bakarrik

daude 5 puntutik behera. Mendebaldeko Barrutiaren kasuan, Mongolia, Maroko, Aljeria eta Magreb, eta Txina ageri dira hala.


## Nazionalitate nagusien integrazio-maila

0 puntutik (integraziorik ez) 10 puntura (integrazio handia) bitarteko eskala

HEGOALDEKO BARRUTIA



EKIALDEKO BARRUTIA




Hegoaldeko eta Ekialdeko Barrutietan, oro har, txikiagoa da nazionalitate horien integrazio-pertzepzioa. Hegoaldeko Barrutiaren kasuan, Txina, Errumania, Maroko Aljeria eta Magreb,

esaterako, 5 puntuen azpitik gaude. Hegoaldeko Barrutian ere ez dira iristen bost puntura Txina, Maroko, Aljeria eta Magreb.

## Nazionalitate nagusiekiko sinpatia-maila:


0 puntutik (sinpatiarik ez) 10 puntura (sinpatia handia) bitarteko eskala

DONOSTIA



Sinpatiarri dagokionez, ikus daiteke, oro har, sinpatiarik handiena sortzen duten jatorriak bat datozela bertakoek integratuagotzat eta/edo integratzeko gaitasun eta interes handiagokotzat jotzen dituzten jatorriekin. Edo alderantziz. Sinpatia-maila txikiena Marokoko, Aljeriako edo Magrebko jatorria duten pertsonen dagokie. Oro har,

EAE




jatorri horiek gure gizartetik oso urrundurik hautematen dira kulturalki, unibertso sinboliko oso desberdin eta urrunekin (hizkuntza, erlijioa, praktika kulturalak, eta abar).

Lehentasunak EAEkoen oso antzekoak dira.


**Nazionalitate nagusiekiko sinpatia-maila:**

0 puntutik (sinpatiarik ez) 10 puntura (sinpatia handia) bitarteko eskala

## IPARRALDEKO BARRUTIA



## MENDEBALDEKO BARRUTIA




Barruti horietan, nazionalitateekiko sinpatia-mailak hiriaren antzeko eskalari jarraitzen dio, baina, oro har, puntuazioak nabarmen handiagoak dira.


## Nazionalitate nagusiekiko sinpatia-maila:

0 puntutik (sinpatiarik ez) 10 puntura (sinpatia handia) bitarteko eskala

EKIALDEKO BARRUTIA



HEGOALDEKO BARRUTIA




Hiri osoaren aldean, Ekialdeko eta Hegoaldeko Barrutietan jatorri batzuei eta besteei emandako sinpatia-mailak, oro har, txikixeagoak dira. Ekialdeko Barrutiaren kasuan, bost puntutik behera daude Maroko, Aljeria eta Magreb.

## Erljio desberdinekiko sinpatia-maila:

0 puntutik (sinpatiarik ez) 10 puntura (sinpatia handia) bitarteko eskala

### DONOSTIA




Donostiako biztanleek sinpatia epela eta oso antzekoa diete erlijio batzuei eta besteei. Erljio katolikoak du sinpatiarik handiena (5,8). Jehovaren Lekukoak eta erlijio musulmana dira gainditzera iristen ez diren sinesmenak.


**Erljio desberdinekiko sinpatia-maila:**

0 puntutik (sinpatiarik ez) 10 puntura (sinpatia handia) bitarteko eskala

IPARRALDEKO BARRUTIA



MENDEBALDEKO BARRUTIA




Mendebaldeko Barrutian, erlijioekiko begikotasun-maila handiagoa antzeman da, eta batek ere ez du jaso gainditua baino batez besteko puntuazio txikiagoa. Alabaina, Iparraldeko Barrutian batezbestekoak txikiagoak dira oro har hiri osoan baino, eta, erlijio katolikoa izan ezik, gainerako guztiak ez dira bostera iristen.


**Erlijio desberdinekiko sinpatia-maila:**

0 puntutik (sinpatiarik ez) 10 puntura (sinpatia handia) bitarteko eskala

EKIALDEKO BARRUTIA




HEGOALDEKO BARRUTIA



Ekialdeko Barrutian batezbestekoak hiri osokoaren oso antzekoak dira, eta erlijio musulmanekiko sinpatia apur bat txikiagoa bakarrik nabarmentzen da. Mendebaldeko Barrutian dute erlijioek sinpatiarik handiena, eta eskalaren behealdeko konfesioek ere —Jehovaren Lekukoak eta erlijio musulmana— bostetik gorako puntuazioa jasotzen dute.

## BALIZKO BIZIKIDETZA ETA HARREMANAK.

Esan kasu bakoitzean ea harreman hori onartuko zenukeen, saihesten saiatuko zinatekeen edo gaitzetsi egingo zenukeen... (%)




Bertakoen eta etorkinen arteko bizikidetzari eta harremani dagokienez, donostiarrek tolerantzia handia ageri dute zenbait kasu planteatzen direnean, hala nola etorkinekin lan egitea edo ikastea (% 94ko onarpena), etorkin bat izatea nagusi gisa lantokian (% 92,5), edo seme-alabek lagun etorkinak etxera eramatea (% 89,8) edo jatorri atzeritarreko bikotekidea izatea (% 81,8).

Bestalde, tolerantzia-maila txikiagoa da beste egoera batzuetan, hala nola etorkin asko bizi diren auzo edo bloke berean bizitzearekin (% 60,5eko onarpena), edo seme-alabak etorkin asko dituen ikastetxe batera eramatearekin (% 67,8).


## BALIZKO BIZIKIDETZA ETA HARREMANAK.

Esan kasu bakoitzean ea harreman hori onartuko zenukeen, saihesten saiatuko zinatekeen edo gaitzetsi egingo zenukeen...  
(onartuko luketenen %)

Jatorri atzerritarreko pertsonekin lan egitea edo ikastea



Jatorri atzerritarreko pertsona bat izatea nagusi gisa lantokian




Antzekoak dira Donostiako biztanleek laneko edo ikasketen alorreko bizikidetzarekin duten jarrera eta EAeko biztanleek oro har dutena. Ez dago alde nabarmenik, Ekialdeko Barrutian izan ezik: gutxiago dira, izan ere, jatorri atzerritarreko pertsonekin lan egitea edo, orobat, jatorri atzerritarreko pertsona bat laneko nagusi gisa izatea onartuko luketen pertsonen pisua (% 82,6 eta % 81,5, hurrenez hurren).


## BALIZKO BIZIKIDETZA ETA HARREMANAK.

Esan kasu bakoitzean ea harreman hori onartuko zenukeen, saihesten saiatuko zinatekeen edo gaitzetsi egingo zenukeen...  
(onartuko luketenen %)

Seme-alabek jatorri atzerritarreko lagunak etxera eramatea



Seme-alabek jatorri atzerritarreko bikotekidea izatea




Donostiarrek jatorri atzerritarreko pertsonen adiskide izateari edo jatorri atzerritarreko bikotekidea edukitzeari buruzko jarrera EAEko biztanleek oro har dutenaren oso antzekoa da. Barrutiz barruti, azpimarratzekoa da onarpen-mailak nabarmen txikiagoak direla Ekialdekoan. Beste aldean dugu Mendebaldeko Barrutia, han baitituzte onarpen-ehuneko handienak.


## BALIZKO BIZIKIDETZA ETA HARREMANAK.

Esan kasu bakoitzean ea harreman hori onartuko zenukeen, saihesten saiatuko zinatekeen edo gaitzetsi egingo zenukeen... (onartuko luketenen %)

Norbere seme-alabak etorkinen seme-alaba asko dauden ikastetxe batera eramatea




Etorkin asko bizi diren auzo edo bloke berean bizitzea



Jatorri atzerritarreko pertsonekin batera bizitzeari dagokionez –hezkuntzaren alorrean zein bizilekuetan– donostiarren jarrera zertxobait positiboagoa da EAE osokoa baino. Barrutiz barruti, azpimarratzekoa da onarpen-mailak nabarmen txikiagoak direla Ekialdekoan; han, pertsonen erdiek baino gehiagok ez dute onartzen bizikidetzeta-mota hori. Beste muturrean dago Mendebaldeko Barrutia, han baitaude onarpen-ehunekorik handienak (% 82,5 eta % 69,1, hurrenez hurren).

## Islamarekiko sentimenduari dagokionez,

EAEko gizarteak, zure ustez, zer sentimendu erakusten du Otik (erabateko mesfidantza) 10erako (erabateko konfiantza) eskalan?



Otik (erabateko mesfidantza) 10era (erabateko konfiantza) bitarteko eskala batean, Donostian inkestatutako pertsonak uste dute euskal gizarteak erabateko mesfidantza-jarrera duela Islamarekiko: 3,84 puntuko batez besteko balorazioa.

Barrutiz barruti, Islamaren onarpen handiena Iparraldekoan ageri da (4,19); Hegoaldekoan, berriz, konfiantzaren puntuazioa hiriko batezbestekoaren azpitik dago (3,23). EAEn oso antzekoa da Islamarekiko sentimendua (3,57 puntu).




# 5

## **Kultura-ereduak mantentzea**

## Jatorri atzerritarreko biztanleen kultura-ereduekiko tolerantzia-maila (%)


■ Ondo   ■ Berdin   ■ Gaizki   ■ ED/EE




Donostian tolerantzia handiagoa ageri da etorkinen zerbitzuekiko eta establezimenduekiko, hala nola sukaldaritza exotikoko jatetxeak irekitzea (% 78,3), denda propioak zabaltea (% 78) edo elikadura-establezimendu propioak izatea (% 71). Alabaina, tolerantzia txikiagoa dute ikastetxe propioak izatearekin (% 35,5), haien erlijioetako tenpluak eraikitzearekin (% 43,5) edo jatorrizko herrialdean bezala janztearekin (% 47). Tarteko onespun-puntu batean ageri dira nork bere hizkuntza hitz egitea (% 62) edo espazio publikoa erabiltzea (% 52,8).

## Jatorri atzeritarreko biztanleen kultura-ereduekiko tolerantzia-maila, barrutiz barruti (ondo iruditzen zaienen %)


Janari exotikoko jatetxeak irekitzea



Denda propioak zabaltzea



Elikadura-establezimendu propioak izatea




Donostiarrek, oro har, euskal gizartearen antzeko tolerantzia-maila dute etorkinen establezimendu eta zerbitzu guztiekiko. Barrutiz barruti, halere, topatzen dugu errepikatzen den jarraibiderik. Mendebaldeko eta Hegoaldeko Barrutietako bizilagunak toleranteagoak dira, bai sukaldaritza exotikoko jatetxeak irekitzeari


dagokionez, bai haien saltokiak irekitzeari dagokionez, edo elikadura-establezimendu propioak izateari dagokionez. Ekialdeko Barrutia, ordea, ez da hain tolerantea hiru item horiekiko.

## Jatorri atzerritarreko biztanleen kultura-ereduekiko tolerantzia-maila, barrutiz barruti (ondo iruditzen zaienren %)


Haien artean beren hizkuntza erabiltzea



Plaza eta espazio publikoak okupatzea



Jatorrizko herrialdean bezala janztea




Alderdi sakonagoetan eragiten duten jarraibideak aztertzen ditugunean –hala nola beren hizkuntza hitz egitea, beren herrialdean bezala janztea edo plazak okupatzea–, datuak EAE osokoen antzekoak dira: Espazio publikoa okupatzeari dagokionez, Donostiako gizartea ez da Euskadikoa bezain tolerantea (% 52,8 eta


% 63,5, hurrenez hurren). Mendebaldekoa da jarraibide horiekiko barrutirik toleranteena. Aldiz, Ekialdeko Barrutiak du tolerantziarik txikiena plaza eta espazio publikoak okupatzearekiko, beren hizkuntza erabiltzen dutenekiko edo jatorrizko herrialdean bezala janzten direnekiko.

## Jatorri atzerritarreko biztanleen kultura-ereduekiko tolerantzia-maila, barrutiz barruti (ondo iruditzen zaienen %)

Haien erlijioetako tenpluak eraikitzea



Haien ikastetxe pribatuak izatea




Haien erlijioetarako tenpluak eraikitzeari eta irakaskuntza-zentroak izateari dagokionez, EAE osoko gizartea Donostiakoa baino apur bat toleranteagoa da –Iparraldeko Barrutia izan ezik, han toleranteagoak baitira—. Ekialdeko Barrutiak ageri du tolerantzia

gutxien haien erlijioentzat tenpluak eraikitzearekin edo haien ikastetxeak izatearekin.

## Tolerantzia-maila: janzkera-ohiturak (%)

Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAera etortzeak bestelako janzkera-ohitura batzuk sortzea eragin du.

(...) Jakin nahiko genuke zer iritziz duzun ohitura horietako batzuei buruz:




Beste kultura eta erlijio batzuk Euskadira iristeari dagokionez, Donostiako biztanleei janzkera desberdinei buruz galdetzen zaienean, gehienei ez zaie egokia iruditzen burka (% 80,3), nikaba (% 77,3) edo txadorra (% 55,3) janztea.

Aldiz, bizilagun gehienei egokia iruditzen zaie tunika bat (% 76,3), hijaba (% 68,8), txilaba (% 68,8) edo burkinia (% 52,8) janztea.

## Tolerantzia-maila: janzkera-ohiturak (%)

Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAera etortzeak bestelako janzkera-ohitura batzuk sortzea eragin du.

Egokiak edo desegokiak iruditzen zaizkie gure gizartean... Tunika (%)




Beste kultura eta erlijio batzuk Euskadira iristeari dagokionez, Donostiako biztanleei galdetzen zaienean janzkera desberdinei buruz, % 76,3k uste du egokia dela tunika janztea, eta % 23,3ri, berriz, desegokia iruditzen zaio. EAEn, antzekoa da janzkera horrekiko tolerantzia-maila.

Ez da alde handirik ikusten barrutiz barruti.

- ED / EE
- Desegokia
- Egokia

## Tolerantzia-maila: janzkera-ohiturak (%)


Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAera etortzeak bestelako janzkera-ohitura batzuk sortzea eragin du. Egokiak edo desegokiak iruditzen zaizkie gure gizartean... Hijaba (%)



Hijabaren kasuan, % 68,8k uste du egokia dela janzteko modu hori, eta % 30i, berriz, ez zaio egokia iruditzen. EAEn, antzekoa da janzkera horrekiko tolerantzia-maila. Barrutirik irekiena Iparraldekoa da (% 74,6), eta murriztaileena, berriz, Ekialdekoa (% 37ri ez zaio iruditzen egokia).

## Tolerantzia-maila: janzkera-ohiturak (%)

Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAera etortzeak bestelako janzkera-ohitura batzuk sortzea eragin du. Egokiak edo desegokiak iruditzen zaizkie gure gizartean... Txilaba (%)




Txilabaren kasuan, % 68,8k uste du egokia dela janzteko modu hori, eta % 30,3ri, berriz, ez zaio egokia iruditzen. Kasu honetan ere, EAE osokoaren antzekoa da janzteko modu horrekiko tolerantzia-maila.

Ez da alde handirik ikusten barrutiz barruti, Ekialdekoan izan ezik, han baita murriztaileena (% 38ri ez zaio egokia iruditzen).

## Tolerantzia-maila: janzkera-ohiturak (%)

Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAera etortzeak bestelako janzkera-ohitura batzuk sortzea eragin du. Egokiak edo desegokiak iruditzen zaizkie gure gizartean... Burkinia (%)




Burkiniaren kasuan, % 52,8k uste du egokia dela janzteko modu hori, eta % 45,5i, berriz, ez zaio egokia iruditzen. Kasu honetan ere, EAE osokoaren antzekoa da janzteko modu horrekiko tolerantzia-maila.

Iparraldeko Barrutia apur bat toleranteagoa da (% 58,2), eta murriztaileena, berriz, Ekialdekoa; izan ere, inkestatutako biztanleriaren erdiei pasatxo (% 56,5) ez zaio egokia iruditzen.

- ED/EE
- Desegokia
- Egokia

## Tolerantzia-maila: janzkera-ohiturak (%)

Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAera etortzeak bestelako janzkera-ohitura batzuk sortzea eragin du. Egokiak edo desegokiak iruditzen zaizkie gure gizartean... Txadorra (%)




Txadorrari dagokionez, desadostasuna da nagusi; zehazki, % 55,3k uste du ez dela egokia janzteko modu hori, eta % 44,3ri, aldiz, egokia iruditzen zaio. EAEn, handixeagoa da janzteko modu horrekiko tolerantzia-maila.

Barrutiz barruti, Iparraldekoa da irekiena (% 52,6k uste du egokia dela), eta murriztaileena, berriz, Ekialdekoa (% 63k ez du uste egokia denik).

- ED / EE
- Desegokia
- Egokia

## Tolerantzia-maila: janzkera-ohiturak (%)

Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAera etortzeak bestelako janzkera-ohitura batzuk sortzea eragin du. Egokiak edo desegokiak iruditzen zaizkie gure gizartean... Nikaba (%)




Nikabaren kasuan, desadostasun-maila oso handia da; zehazki, % 77,3k uste du ez dela egokia janzteko modu hori, eta % 21,8ri bakarrik iruditzen zaio egokia. EAEn, handixeagoa da janzteko modu horrekiko tolerantzia-maila. Mendebaldeko Barrutia gainerakoak baino irekiagoa da (% 26,8k uste du egokia dela), eta Hegoaldekoa, berriz, murriztaileagoa (% 82k ez du jotzen egokitzat).

- ED / EE
- Desegokia
- Egokia

## Tolerantzia-maila: janzkera-ohiturak (%)

Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAera etortzeak bestelako janzkera-ohitura batzuk sortzea eragin du. Egokiak edo desegokiak iruditzen zaizkie gure gizartean... Burka (%)



Burkaren kasuan, nikabaren kasuan bezala, oso handia da aurkakotasun maila: hamar donostiarretatik zortzik uste du ez dela egokia janzteko modu hori. EAEn, handixeagoa da janzteko modu horrekiko tolerantzia-maila, baina desadostasuna da nagusi halere. Ez da alde handirik ikusten barrutiz barruti.


- ED / EE
- Desegokia
- Egokia



# 6

## **Estereotipoak**

## Zure udalerrian edo auzoan gehien entzuten diren zurrumurruak (erantzun iradokia, %)



Euskal herritarrei zenbait zurrumurru aurkezten dizkiegunean —udalerrian edo auzoan gehien entzuten direnak zein diren adieraz diezaguten—, lehenbiziko ageri zaigu gizarte-laguntzetatik bizi direla eta abusatu egiten dutela dioena (% 67,8), eta, ondoren, immigrazioarekin batera delinkuentzia ere areagotu egiten dela dioena (% 51,3).

Hedatuta samar dauden beste estereotipo batzuk honako hauek dira: ezin dugu onartu etorkin gehiago (% 34,8), babes ofizialeko etxebizitzak eramaten dituzte (% 21,5), lana kentzen digute (% 20,8) edo ez dute integratu nahi (% 21,3).


## Zure udalerrian edo auzoan gehien entzuten diren zurrumurruak, barrutiz barruti (erantzun iradokia, %)

	Iparraldeko Barrutia	Hegoaldeko Barrutia	Ekialdeko Barrutia	Mendebaldeko Barrutia	Donostia	EAE
Gizarte-laguntzetatik bizi dira eta gehiegi baliatzen dituzte	65,6	75,3	67,4	63,9	67,8	72
Immigrazioarekin areagotu egiten da delinkuentzia	57,4	57,3	53,3	36,1	51,3	47,9
Ezin dugu onartu etorkin gehiago, gehiegitxo dira	25,4	30,3	40,2	45,4	34,8	29,4
Babes ofizialeko etxebizitzak eramaten dituzte	32,8	6,7	27,2	15,5	21,5	24,7
Ez dute integratu nahi	21,3	13,5	22,8	26,8	21,3	23,3
Lana kentzen digute	16,4	41,6	10,9	16,5	20,8	23,5
Ez dituzte arauak betetzen eta ez dute gizalegez jokaten	25,4	3,4	3,3	20,6	14,3	7,8
Immigrazioak matxismoa eta genero-indarkeria areagotzen ditu	12,3	14,6	5,4	7,2	10	11,4
Osasun-sistemaz abusatzen dute eta larrialdiak kolapsatzen dituzte	10,7	1,1	2,2	11,3	6,8	14,4
Espazio publikoak okupatzen dituzte, neurritz kanpo eta gaizki erabiltzen dituzte	5,7	2,2	2,2	9,3	5	2,5
Ikasle etorkinek jaitsi egiten dute ikastetxeetako hezkuntza-maila	2,5	9	5,4	2,1	4,5	5,3
Merkatarri atzeritarrek ez dute ordaintzen zergarik	4,1	1,1	4,3	6,2	4	3,4

Oso antzekoak dira Donostian immigrazioari buruz entzuten diren zurrumurruren eskala eta EAE osokoa. Aipatu behar da hirian gehiago direla segurtasunik ezarekin eta delinkuentziarekin zerikusia dutenak, bai eta etorkin gehiago ezin dugula onartu dioen ideiarekin lotuak ere. Etorkinak gizarte-laguntzetatik bizi direla eta babes ofizialeko etxebizitzak eramaten dituztela diotenekoa txikixeagoa da Donostian, EAE osoko datuekin alderatuta. EAERI dagokionez, eskala antzekoak ageri dira zurrumuru hauekin: gizarte-laguntzetatik bizi direla eta babes ofizialeko etxebizitzak eramaten dituztela.


Donostian, aldiz, handiagoa da delinkuentziarekin lotzeko joera eta etorkin gehiago ezin dela onartu dioena. Barruti guztietan, nahiko antzekoa da zurrumurruren inguruko eskala, eta esan behar da immigrazioak segurtasunik eza eta delinkuentzia areagotzen dituela dioen zurrumurruek indar handiagoa duela Iparraldeko eta Hegoaldeko Barrutietan. Bestalde, etorkin gehiago ezin dugula onartu dioen zurrumurrua gehiago dago hedatuta Ekialdeko eta Mendebaldeko Barrutietan. Azkenik, badirudi babes ofizialeko etxebizitzak eramaten dituztela dioen zurrumurruek pisu handixeagoa duela Iparraldeko Barrutian.

## Estereotipo/zurrumurru nagusiak (%)



Donostian gehien errotutako estereotipoak segurtasunik ezarekin eta prestazio ekonomikoen sistema gehiegi baliatzearekin daude lotuta (% 32,6 eta % 32, hurrenez hurren). Ondoren datoz babes ofizialeko etxebizitzak, matxismoaren gorakada eta jasotzen dutenaren aldean zerga gutxi ordaintzea. Aldiz, gutxien hedatutako estereotipoek gizalege txikiagoarekin dute zerikusia (% 5,6) edo lana kentzearekin (% 8,6).

## Atzerriko etorkinen presentziak segurtasunik eza eta delinkuentzia eragiten ditu (%)




Donostiako biztanleen % 32,6k uste du etorkinek segurtasunik eza eta delinkuentzia sortzen dutela; % 41,5, berriz, ez daude ados horrekin, eta % 25,5, berriz, ez ados ez kontra.

EAEko datuen oso antzekoak dira.


Barrutiz barruti, estereotipo hori hedatuago dago Ekialdekoan (% 56,5) eta beste muturrean ageri dira Mendebaldeko eta Iparaldeko Barrutiak (% 18,5 eta % 21,4, hurrenez hurren).

## Etorkinek gehiegi baliatzen dute gizarte-babeseko sistema (%)



Donostiako biztanleen % 32k uste du etorkinek gehiegi baliatzen dutela gizarte-babeseko sistema; % 45, berriz, ez daude ados, eta % 19,8, azkenik, ez ados eta ez kontra horri dagokionez. EAEn indar handiagoa du estereotipo horrek. Barrutiz barruti, estereotipo hori gehiago dago hedatuta Ekialdekoan (% 47,8), eta beste muturrean ageri dira Mendebaldekoa (% 19,6) eta Hegoaldekoa (% 24,7).

## Etorkinek babes ofizialeko etxebizitzak eramaten dituzte (%)




Donostiako biztanleen % 26,8k uste du etorkinek babes ofizialeko etxebizitzak eramaten dituztela; % 48,3, berriz, ez daude ados, eta % 10,8, azkenik, ez ados ez kontra.

EAEn emaitzak oso antzekoak dira.

Barrutiz barruti, estereotipo hori gehiago dago hedatuta Ekialdeko Barrutian (% 44,6), eta indar gutxiago du Mendebaldekoan (% 16,5) eta Hegoaldekoan (% 18).


## Etorkinek babes ofizialeko etxebizitzak eramaten dituzte (%)



Donostiako biztanleriaren % 24,6k uste du immigrazioak matxismoa eta genero-indarkeria areagotzen dituela, % 48,0 ez dago ados horrekin, eta % 21,3, azkenik, ez ados ez kontra.

Estereotipo horren presentzia handixeagoa da EAEn. Barrutiz barruti, estereotipo hori gehiago dago hedatuta Ekialdeko Barrutian (% 46,7), eta ez dago hain hedatuta Mendebaldekoan (% 11,3).

## Immigrazioak matxismoa eta genero-indarkeria areagotzen ditu (%)




Donostiako biztanleen % 23,6k uste du etorkinek zerga gutxi ordaintzen dituztela gero jasotzen dutenaren aldean; % 52,3 ez daude ados horrekin, eta % 12,5, azkenik, ez ados ez kontra.

Estereotipo horren presentzia handixeagoa da EAEn.

Estereotipo horrek presentzia handiagoa du Ekialdeko Barrutian (% 44,6) eta txikiagoa Mendebaldekoan (% 14,4).

## Etorkinen presentziak areagotu egiten du langabezia Euskadin (%)




Donostiako biztanleriaren % 71,8k ez du uste etorkinen erlijio-praktikak langabezia handituko dutenik Euskadin; % 14,6k, ordea, hala uste du, eta % 11,3k ez du iritzirik horren inguruan.

Datu horiek EAEkoen oso antzekoak dira.

Barrutiz barruti, estereotipo hori gehiago dago hedatuta Ekialdeko Barrutian (% 34,8). Beste muturrean, Mendebaldeko Barrutia ageri da (% 2,1).

## Etorkinek gehiegi erabiltzen dute euskal osasun-sistema eta larrialdiak kolapsatzen dituzte (%)




Donostiako biztanleen bi herenek (% 66,3) ez dute uste etorkinek EAEko osasun-sistema gehiegi erabiltzen dutenik eta larrialdiak kolapsatzen dituztenik; % 14,3k baietz uste du, eta % 8,5, berriz, ez hotz ez bero horri dagokionez.

Datuak EAE osokoen nahiko antzekoak dira.

Barrutiz barruti, estereotipo hori gehiago dago hedatuta Ekialdeko Barrutian (% 25). Beste muturrean, Iparraldekoa ageri da (% 7,3).

## Etorkinek ez dute integratu nahi (%)




Etorkinek ez dutela integratu nahi dioen estereotipoari dagokionez, ia erdiak ez daude ados (% 47), baina nabarmentzekoa da ez ados ez kontra ageri diren pertsonen garrantzia (% 39,3). % 12,8 baino ez dago ados baieztapen horrekin.

Emaitza horiek EAE osokoen antzekoak dira.

Barrutiz barruti, estereotipo hori gehiago dago hedatuta Ekialdeko Barrutian (% 31,6), eta indar gutxiago du Mendebaldekoan (% 4,1).

## Ikasle etorkinek jaitsi egiten dute ikastetxeetako hezkuntza-maila (%)




Donostiako biztanleen % 68k ez du uste ikasle etorkinek ikastetxeetako hezkuntza-maila jaitziko dutenik; % 11,8k, aldiz, hala uste badu, eta % 6,8k, berriz, ez du iritzi garbirik. Estereotipo horrek EAE osoan baino indar gutxiago du.

Barrutiz barruti, estereotipo hori gehiago dago hedatuta Ekialdeko Barrutian (% 25).

Beste muturrean, Mendebaldeko Barrutia (% 3,1) eta Iparraldekoa (% 6,5) daude.

## Etorkinek espazio publikoak okupatzen dituzte, eta neurriz kanpo eta gaizki erabiltzen dituzte (%)




Donostiako biztanleriaren % 68,8k ez du uste etorkinek espazio publikoak okupatzen dituztenik, ez eta neurriz kanpo eta gaizki erabiltzen dituztenik ere; aldiz, % 18,5 ez hotz ez bero agertzen da eta % 10,6, azkenik, baiezkotan dago.

Estereotipo horrek EAE osoan baino indar txikiagoa du.

Barrutiz barruti, estereotipo hori gehiago dago hedatuta Ekialdekoan (% 17,4). Beste muturrean, Mendebaldeko Barrutia ageri da (% 2,1).

## Etorkinek lana kentzen digute (%)




Donostiarren hamarretik ia zortzik ez du uste etorkinek lana kentzen dutenik, % 9,5 ez hotz ez bero ageri da horri dagokionez, eta 8,6, azkenik, baiezkoan dago.

Datu horiek EAEkoen oso antzekoak dira.

Barrutiz barruti, estereotipo hori gehiago dago hedatuta Ekialdeko Barrutian (% 21,8). Beste muturrean, Mendebaldeko Barrutia ageri da (% 2,1).

## Etorkinek ez dituzte arauak betetzen eta ez dute gizalegez jokatzeko (%)



Donostiarren hamarretik zazpi ez du uste etorkinek arauak betetzen ez dituztenik eta gizalegez jokatzeko ez dutenik; % 24 axolagabe ageri da, eta % 5,6, azkenik, baiezkotan dago.

Datu horiek EAEkoen oso antzekoak dira.

Barrutiz barruti, estereotipo hori pixka bat gehiago dago zabaldua Hegoaldeko (% 9) eta Ekialdeko (% 8,7) barrutietan. Beste muturrean Iparraldekoa ageri da (% 1,6).

- ED / EE
- Ados ez
- Zalantzan
- Ados


# 7

## Immigrazio-politika

- a. Sartzea, bizitzen geratzea eta kanporatzean
- b. Administrazio-egoera irregularrean dauden etorkinei buruzko politika
- c. Babesa edo asiloa eskatzen dutenekiko politika
- d. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrekiko politika

## A) SARTZEA, BIZITZEN GERATZEA ETA KANPORATZEA

Immigrazio-politika, Donostiako biztanleriaren arabera eta barrutiz barruti (%)




Donostiako biztanleriaren % 31,8 etorkinak sartzeko oztopo legalak ez jartzearen aldekoa da.

Bestalde, % 62,6k sarrera baimenduko luke, baina baldintzekin: lan-kontratua izateari (% 43,8) edo legezko beste baldintza batzuk betetzeari loturik (% 18,8). Bestalde, biztanleriaren % 2,5ek soilik debekatuko luke etorkinak sartzeari. Emaitza horiek EAEkoen oso antzekoak dira. Barrutiz barruti, Iparraldekoan eta Mendebaldekoan dute jarrerarik irekiena (baldintzarik gabeko sarreraren alde, % 50 eta % 43,3, hurrenez hurren); posizio murriztaileenak, berriz, pisu handiagoa du Ekialdeko Barrutian (% 7,6k erabat debekatuko luke etorkinak sartzeari).

## Delinkuentzia, kanporatzeko arrazoia:

Hona etorri den norbaitek delituaren bat egiten badu, herrialdetik kanpora bidali beharko litzateke (%)




Kanporatzeko arrazoiei buruz galdetuta, hiriko biztanleen erdiek baino gehiagok (% 56) ez dute uste delituak herrialdetik kanporatzeko arrazoia izan behar duenik; % 29,5 horren alde dago eta % 10,5i berdindio.

Alderaturik, euskal gizartearen posizioa zertxobait gogorragoa da. Barrutiz barruti, adostasun-maila handiagoa dago Ekialdeko Barrutian delitua eta kanporatzea lotzeko (% 56,5), eta desadostasun-maila handiagoa Iparraldekoan (% 69,7) eta Mendebaldekoan (% 64,9).

## Langabezia, kanporatzeko arrazoia:

Lanera etortzen diren atzerriarrak, denboraldi batez langabezia geratuz gero, kanpora bidaliko beharko lirateke (%)




Immigrazioaren ikuspegi funtzionalagoa eta utilitaristagoa den arren, Donostiako gizartearen gehiengoa (% 87,6) langabezia geratzen diren etorkinak kanporatzearen aurka dago.

Ehuneko hori EAE osokoa baino handixeagoa da. Baieztapen horrekiko desadostasun handiena Iparaldeko Barrutian (% 93,4) eta Mendebaldekoan (% 91,7) ageri da, eta txikiena, berriz, Ekialdekoan (% 75).

## B) ADMINISTRAZIO-EGOERA IRREGULARREAN DAUDEN ETORKINEI BURUZKO POLITIKA

Zure ustez




Administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonak erregularizatzeari dagokionez, Donostiako gizartea, oro har, alde ageri da (% 81,5), baldintzekin edo baldintzarik gabe.

Alde horretatik, hiriko biztanleen erdiek baino gehiagok (% 52) uste dute lan-kontratu duten pertsonak soilik erregularizatu beharko liratekeela; aldiz, % 29,5 egoera irregularrean dauden etorkin guztiak erregularizatzearen aldekoa da (egoitzabaimenak ematea), haien lan-egoera edozein dela ere.

Bestalde, % 7 jatorrizko herrialdera bidaltzearen aldekoa da. EA Erekin alderatuta, txikixeagoa da erregularizatzearen aldeko pertsonen ehunekoak. Barrutiz barruti, posizio irekienak Iparraldekoan daude: % 45,1 egoera irregularrean dauden etorkin guztiak erregularizatzearen alde dago. Ekialdeko Barrutian ageri dira posizio murriztaileenak: % 15,2k emango lizkieke bitartekoak beren herrialdera itzultzeko, eta % 5,4k kanporatu egingo lituzke.

### C) BABESA EDO ASILOA ESKATZEN DUTENEKIKO POLITIKA


Eta babesa edo asiloa eskatzen duten pertsonekin, zure ustez, zer egitea izango litzateke egokiena? (%)



Donostiarren ustean, babes politikoa eskatzen duten etorkinei buruzko politikak murrizketarik gabe harrera egitea izan behar du (% 37), edo, bestela, jazarrita daudela egiaztatzen denean hartzea (% 37,5). % 14,5ek kuotetan oinarritutako harreraren alde egiten du.

EAErekin alderatuta, emaitza antzekoak dira. Barrutiz barruti, posizio irekienak Iparraldeko eta Mendebaldeko Barrutietan daude, eta Ekialdeko Barrutian, berriz, aukera murriztaileenek dute pisu handiena.

## Asiloa eta babes eskatzen duten pertsonen emandako erantzuna (%).




Asiloa eta babes eskatzen duten pertsonen buruzko pertzepzio horietan sakonduz eta erakundeek eta gizarteak emaniko erantzunari erreparatuz, % 77,8k uste du erantzun bera izan beharko lukeela pertsona guztientzat, jatorri-herrialdea edozein dela ere.

Bestalde, % 11,3k uste du normala dela erakundeek eta gizarteak elkartasun handiagoa erakustea hurbileko herrialdeetatik datozen babes-eskatzaileei, eta beste % 11k, berriz, zalantza adierazi du, ez duela horri buruzko iritzirik zehatzik.

EA Erekin alderatuta, Donostiako gizarte irekiagoa da. Barrutiz barruti, ez dago alde handirik, eta zera bakarrik nabarmendu behar da, Mendebaldeko Barrutiak duela irekitasun handiena.

## D) BAKARRIK DAUDEN ADINGABE ATZERRITARREKIKO POLITIKA

Euskal Autonomia Erkidegora, zenbaitetan, atzerritar adingabeak iristen dira, tutorerik edo haietaz arduratzen den pertsona heldurik gabe. Zure ustez, zein izan behar da euskal administrazioen jarrera kasu horietan? (%)




Donostiarrik gehienek uste dute EAEko administrazioek artatu egin behar dituztela familia-laguntzarik gabeko atzerritar adingabeak, baina ñabardurekin: % 38k dio kupo batera arte artatu behar direla; beste % 33,5, berriz, tutoretzapeko etxebizitzak edo egoitzak ematearen aldekoa da.

Azkenik, beste % 23k uste du jatorrizko herrialdera bidali beharko liratekeela.

Datu horiek EAE osokoen antzekoak dira. Azpimarratzekoa da Ekialdeko Barrutian jarrerak polarizatu egiten direla; izan ere, % 40,2 tutoretzapeko etxebizitzak edo egoitzak ematearen aldekoa da, eta % 35,9k uste du jatorrizko herrialdera bidali behar direla.

## Lehen hitz egin dugu lagun gabeko atzeritar adingabeez.


Adin-nagusitasunera iristen direnean, hau da, 18 urte betetzen dituztenean, zer uste duzu egin beharko luketela euskal administrazioek? (%)



Euskadin adin-nagusitasuna betetzen duten eta familia-laguntzarik ez duten atzeritar adingabeei dagokienez, hirian inkesta egin zaien herritarren ia erdiek uste dute aholkularitza eskaini beharko litzaiekeela ikasketekin eta lanarekin jarrai dezaten (% 49,5). Bestalde, hamar pertsonatik hiru inguru (% 31) ados daude laguntza-programaren bat abian jartzearekin, eta % 14k EAEn jarraitzea laneratzearekin lotzen dute.

Datu horiek EAE osokoen antzekoak dira. Posizio murriztaileena Ekialdeko Barrutian dago (% 21,7), jatorrizko herrialdera bidaltzearen aldekoa baita.

## Inork lagundu gabeko adingabe eta gazte atzeritarrei buruzko pertzepzioak (%)




Senideren batek lagundu gabeko atzeritar adingabe horiek bizi duten egoeran sakonduz, gizarteak ikusten du gazteok askoz arazo gehiago dituztela lan-merkatuan sartzeko (% 85,3) bertako biztanleek baino.

Esparru horretan, Donostiako gizartearen gehiengoak uste du erakundeek ahalegina egin beharko luketela haien eskubideak bermatzeko (% 78,1) edo haien integrazioa errazteko (% 75). Hala ere, herritarrak zalantzati agertzen dira, eta ez erabat seguru, galdetzen zaienean ea erakundeak gehiegi ari ote diren babesten kolektibo hori.


Segurtasunik ezari eta delinkuentziari dagokienez, hamar pertsonatik zazpik uste dute familia-erreferentziarik gabeko adingabeen eta gazteen etorrerak eragin negatiboa izango duela (% 72,3).

## Inork lagundu gabeko gazte atzerritarrek arazo asko dituzte lana bilatzeko (%)




Donostiako biztanle gehienek (% 85,3) uste dute inoren kargura ez dauden gazte atzerritar horiek zailtasun handiak dituztela lana aurkitzeko. Emaitzak EAEkoen oso antzekoak dira. Mendebaldeko Barrutian dago adostasun handiena baieztapen horrekin.

## Erakundeek inoren kargura ez dauden adingabe eta gazte atzeritarren eskubideak bermatu behar dituzte




Hirian inkesta egin zaien herritar gehienek (% 78,1) uste dute erakundeek bermatu egin behar dituztela adingabe eta gazte horien eskubideak. Mendebaldeko eta Iparraldeko Barrutietan, pertsona gehiagok uste dute erakundeek pertsona horien eskubideak bermatu behar dituztela (% 88,7 eta % 84,4, hurrenez hurren), eta Ekialdeko Barrutian, berriz, konpromiso epelagoa ageri da (% 56,5 dago ados).


## Gizarte gisa, familia-laguntzarik gabeko adingabeak eta gazteak integratzeko baliabideak jarri behar ditugu



Lau donostiarretik hiruk uste du, gizarte gisa, baliabideak jarri behar ditugula adingabe eta gazte horiek integratzeko. Berriz ere, emaitzak EAEkoen nahiko antzekoak dira. Baieztapen horrekiko adostasun-maila handiagoa da Hegoaldeko Barrutian (% 85,4) eta txikixeagoa Iparraldekoan (% 69,6) eta Ekialdekoan (% 68,4).




## Inoren kargura ez dauden adingabe eta gazte atzeritarren etorrerak eragin negatiboa du herritarren segurtasunean (%)




Donostiarren % 72,3k uste du gazte eta adingabe horiek eragin negatiboa dutela herritarren segurtasunean, eta ehuneko hori nabarmen handiagoa da EAE osokoa baino (% 59,5).

Iparraldeko eta Ekialdeko Barrutietan joera handiagoa dago gazte horiek herritarren segurtasunik ezarekin lotzeko, eta Hegoaldekoan, berriz, txikiagoa.



## Erakundeek gehiegi babesten dituzte bakarrik dauden adingabe eta gazte atzerritarrak (%)




Donostiako gizartea zatiturik ageri da erakundeek inoren kargura ez dauden adingabe eta gazte atzerritarrak gehiegi babesten ote dituzten galdetzen zaionean; % 38 ez dago ados baieztapen horrekin, eta % 37,1, aldiz, bai. Emaitzak EAEkoen antzekoak dira. Ekialdeko Barrutian, handiagoa da talde hori gehiegi babesten dela uste duten pertsonen ehunekoa (% 46,8); Hegoaldekoan, berriz, nabarmen txikiagoa da ehunekoa hori (% 28).

# 8

## Tolerantzia-indizea

## Tolerantzia-indizea, 2023




Donostiarren tolerantzia-indizeak 66,73 puntu eman ditu 2023an.

Grafikoan ikus dezakegunez, banaketa normala osatzera iritsi gabe ere, esan daiteke ez dagoela multzo jendetsurik banaketa horren mutur banatan; hau da, ez da ageri polarizaziorik Donostiako gizartean auzi horri dagokionez.

Ikus daitekeenez, gutxi dira muturreko posizioetan dauden pertsonak (puntuaziorik handiena 91,50 da, eta txikiena, berriz, 13,58). Aldiz, pertsona asko ageri da tarteko posizioetan, eta horrek iradokitzen du argi- ilunik jatorri atzeritarreko pertsonetikiko dituzten jarreretan, pertzepzioetan eta jokabideetan.

Grafikoan ikus daitekeenez, 50 eta 90 puntuen artean ageri da pertsona-kontzentrazio handiena, eta, horrenbestez, biztanleen erdiek 69,50 puntu baino gehiago dituzte.


## 2023ko tolerantzia-indizearen konparazioa



Donostian ez daukagu aurreko edizioetako barometroen daturik, 2023an lortutako 66,73 puntuak alderatu ahal izateko eta testuingurua emateko. Alabaina, badugu alderaketa egiteko beste elementu bat eskura: EAEko 2023ko tolerantzia-indizea.

Grafikoan oso argi geratzen da oso antzekoak direla bi balioak: EAEko indizea hiruzpalau hamarren txikiagoa da, hori baino ez. Desberdintasun txikiok adierazten digute ez dagoela alderik Donostiako biztanleen jarrera, pertzepzio eta jokabideetan, EAEko osoko biztanleek ageri dituztenekin alderatuta.

## Donostiarren tolerantzia-mailaren pertzepzioa (0 puntutik 10 puntu artera), 2023




Inkestatutako pertsonak beren buruari eta Donostiako gizarteari buruz egiten duten ebaluazioari dagokionez, ikusten dugu hurbildu egiten direla bi puntuazioak – goitik zein behetik – 2023ko tolerantzia-indizeak emaniko puntuaziora: gure indizearen puntuazioa (66,73 puntu) donostiarrek beren buruari ematen dioten balorazioaren (7,44 puntu) eta Donostiako gizarte osoari ematen diotenaren (6,66 puntu) artean dago. Ohikoa denez, gizakiok iritzi hobea izaten dugu geure buruari buruz, eta apalagoa izan ohi da besteak epaitzen ditugunean.

Nolanahi ere, pertsonak beren buruaz duten isuri kognitiboak –jatorri atzeritarreko pertsonetako xenofobia- edo tolerantzia-maila neurtzean ohikoa den bezala– ez die eragozten azterketa nahiko doitu egitea errealitatearen, norbere egoeraren eta euskal gizartearen gainean. Hori horrela den heinean, pertsonak egiten duten balioespen subjektiboa nahiko bat dator guk egin dugun indizeak emaniko balioespenarekin.


EAE osoko emaitzekin alderatuta, ikusten dugu oso parekoak direla puntuazioak.

## Hamar arloetako puntuazioak, (0 puntutik 10 puntu artera), 2023



Indizea osatzen duten hamar arloetako donostiarren puntuazioak aztertuz gero, bolumenaren eta bizikidetzaren alorreko pertzepzioak nabarmentzen dira, arlo horietan ikusten baita puntuaziorik apalena Donostiako biztanle guztien artean. Beste muturrean, arazoaren pertzepzioa nabarmentzen da, eta, ildo horretan, argi eta garbi geratzen da donostiarren posizioa: ez dago arazorik jatorri atzeritarreko biztanleekin. Donostiarren arazo nagusiak beste batzuk dira.

## Tolerantzia-indizea barrutiz barruti, (0 puntutik 100 puntu artera), 2023



Donostiako auzoen azterketak adierazten digu estatistikoki alde garrantzitsuak ageri direla barruti batzuetan eta besteetan nabarmentzen direla jarreretan, pertzepzioetan eta jokabideetan. Esate baterako, Mendebaldeko Barrutian eta Iparraldekoan bizi direnen tolerantzia nabarmen handiagoa da Ekialdeko Barrutian bizi direnen aldean, eta tartean geratzen da Hegoaldekoa, ez baita gehiegi aldentzen ez lehenbiziko bietatik, ez hirugarrenetik.

## Tolerantzia-indizearekin lotutako aldagaiak, 2023

### TOLERANTZIA-ATALASE TXIKIAGOA

#### DUTEN PERTSONEN PROFILA

	Aldagaia	Sig.	
45 urte eta gehiago	Adina	.001	18-29 urte
Lehen mailako ikasketak	Ikasketak	.000	Unibertsitate-ikasketak
Ekialdeko Barrutia	Barrutia	.000	Mendebaldea eta Iparraldea
Erdaldunak	Hizkuntza	.001	Euskaldunak
Katoliko praktikanteak	Erljioa	.000	Agnostikoak, ateoak edo berdin zaienak
Nagusiki euskaldunak bezain espainiarrak	Nortasun-sentimendua	.012	Nagusiki euskaldun sentimendua
Eskuinekoa	Ideologia	.000	Ezkerrekoa, erdialde-ezkerrekoa eta erdialdekoa
Hilean 1.800 € arte	Diru-sarrerak	.000	Hilean 2.500 € baino gehiago
Konforme ez beren egungo egoera ekonomikoarekin	Egoera ekonomikoa	.000	Konforme beren egungo egoera ekonomikoarekin
Erretiratuak	Okupazioa	.005	Ikasleak
Estatus apala	Estatusa	.000	Estatus handia
Ezkorrak	Baikortasuna	.000	Baikorrak eta epelak
Itxaropen txarrak	Etorkizuna	.000	Itxaropen onak
Immigrante ugari	Auzoa	.000	Nahasian eta bertakoak gehiago
Harremanik ez	Interakzio publikoa	.025	Harreman pixka bat edo handia
Batere interakziorik ez	Aisia-interakzioa	.000	Interakzio pixka bat edo handia

### TOLERANTZIA-ATALASE HANDIAGOA

#### DUTEN PERTSONEN PROFILA

Aldagai soziodemografiko, politiko-ideologiko, ekonomiko edo psikosozial gehienek bi aldaerako erlazioan bereizten dituzte portaerak (horren salbuespen dira sexua, nazionalismoa eta jatorri atzeritarreko pertsonekin bizimodu pribatuan duten harremana). Nolanahi ere, jatorri atzeritarreko pertsonetikiko tolerantzia handiago edo txikiagoaren atzean ageri diren faktoreek zerikusi handiagoa dute banakako desberdintasunekin eta ez gizarte-kategorizaziotik lortutakoekin –bariantza osoaren % 31,13 baino ez baitugu azaltzen–.



## Donostiako biztanleen tipologiak, 2023

Batezbestekotik gorako puntuazioak dituzten populazio-segmentuak:

- 1. mota.** Mendebaldeko edo Iparraldeko Barrutietan bizi diren pertsonak, unibertsitate-ikasketak dituztenak eta agnostikoak, ateoak edo erlijioarekiko axolagabeak: 76,86 puntu (laginaren % 13,8 dira).
- 2. mota.** Mendebaldeko edo Iparraldeko Barrutietan bizi diren pertsonak, bigarren mailako ikasketak eta hilean 2.500 €-tik gorako diru-sarrera garbiak dituztenak: 75,82 puntu (laginaren % 6,8).
- 3. mota.** Hegoaldeko Barrutian bizi diren eta jatorri atzeritarreko pertsonekin aisialdi-harremanen bat duten pertsonak: 71,53 puntu (laginaren % 8,8).
- 4. mota.** Mendebaldeko edo Iparraldeko Barrutietan bizi diren gizonak, bigarren mailako ikasketak dituztenak eta hilean 2.500 €-tik beherako diru-sarrera garbiak dituztenak: 71,13 puntu (laginaren % 7,5).
- 5. mota.** Mendebaldeko edo Iparraldeko Barrutietan bizi diren pertsonak, unibertsitate-ikasketak dituztenak eta katolikoak, praktikanteak ala ez: 69,27 puntu (laginaren % 7,0).
- 6. mota.** Iparraldeko Barrutian bizi diren eta etorkizunerako itxaropen onak dituzten pertsonak: 67,76 puntu (laginaren % 9,0 dira).

Batezbestekotik beherako puntuazioak dituzten populazio-segmentuak:

- 7. mota.** Mendebaldeko edo Iparraldeko Barrutietan bizi diren eta lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak: 65,42 puntu (laginaren % 10,0).
- 8. mota.** Mendebaldeko edo Iparraldeko Barrutietan bizi diren emakumeak, bigarren mailako ikasketak dituztenak eta hilean 2.500 € baino gutxiagoko diru-sarrera garbiak dituztenak: 65,19 puntu (laginaren % 9,8).
- 9. mota.** Hegoaldeko Barrutian bizi diren pertsonak, jatorri atzeritarreko pertsonekin batere aisialdi-harremanik ez dutenak edo harreman handia dutenak: 62,43 puntu (laginaren % 13,5).
- 10. mota.** Iparraldeko Barrutian bizi diren pertsonak, etorkizunerako itxaropen normalak edo txarrak dituztenak: 51,25 puntu (laginaren % 14,0).


Oro har, aztertutako aldagaiok bariantza osoaren % 31,13 azaltzen dute; hau da, euskal gizartearen jarrera-desberdintasun guztien % 31,13. Gainerakoek ezaugarri indibidualak, nortasunari dagozkionak edo inguruabarrekin loturikoak dituzte oinarri.

## Amaierako konglomeratuen zentroak , (0 puntutik 10 puntu artera), 2023

	Taldea		
	Tolerantea	Anbibalentea	Uzkurra
Bolumenaren pertzepzioa	6,14	4,66	2,41
Arazoaren pertzepzioa	9,76	9,46	8,5
Ekonomian dituen eraginak	8,37	7,23	3,89
Euskal gizartean dituen eraginak	7,86	7,22	4,45
Immigrazio-politika	8,51	6,66	4,61
Eraginak guztira	7,57	6,33	3,75
Bizikidetz-ereduak	5,76	4,22	1,43
Estereotipoak	7,59	5,79	2,39
Eskubideak eskuratzea	9,23	7,33	4,22
Harremanetarako espazioak	8,67	7,71	4,53


Donostiako biztanleak sailkatzeko beste modu bat ere proposatzen dugu. Alegia, hiru talde handitan sailkatzea: pertsona toleranteen taldea – beti bezala, haiek dituzte puntuaziorik onenak hamar arloetan –; anbibalenteak, tarteko posizioetan daudenak; eta, hirugarrenik, uzkurak, hamar arloetan puntuaziorik eta jarrerarik txarrenak dituztenak.

## Taldeen puntuazioak hamar arloetan (azken zentroak), 2023



Hiru taldeek jokabide nabarmen desberdinak ageri dituzte hamar arloetan, immigrazioa arazo gisa hautemateari dagokion dimentsioan izan ezik. Gai horretan, talde anbibalentea eta talde tolerantia ez dira bereizten, eta bat datoz immigrazioa arazotzat ez sentitzearekin. Horretaz gainera, uzturen taldeak eman dio puntuaziorik handiena immigrazioa arazotzat hartzeari –nahiz eta arlo horri gainerakoei baino puntu dezente gutxiago eman, hau da, migrazioaren gaia ere ez du sentitzen lehentasunezko arazo gisa—. Laburbilduz, Donostiako gizarteak ez du hartzen immigrazioa arazotzat.


## Talde batzuen eta besteen puntuazioak tolerantzia-indizean, 2023



Donostiako gizartean bereizten diren hiru talde handiek –toleranteak, anbibalenteak eta uzkurak– jarrera eta jokabide nabarmen desberdinak dituzte, hau da, puntuazio desberdinak estatistikoki:

- Toleranteen taldeak 79,47 puntu ditu batez beste, alegia, jarrera irekiak eta inklusiboak ditu, argi eta garbi.
- Anbibalenteen taldeak 66,61 puntu eskuratu ditu; horrek jarrera positiboak adierazten ditu, nahiz eta hobetzeko modukoak diren nabarmen.
- Uzkurren taldea, azkenik, eskalaren batez besteko puntuaziotik behera geratzen da: 40,18 puntu. Horrek aurkakotasun- eta zuhurtasun-posizioak adierazten ditu, nahiz eta ez duten jarrera baztertzaila garbirik.

## Taldeen arteko konparazioa 2023ko tolerantzia-indizean




Euskal Autonomia Erkidegoan 2023an lortutako emaitzekin alderatuta, esan dezakegu oso antzekoak direla Donostiako gizartearen portaera eta EAEkoarena. Agian, azpimarratzekoa da talde tolerantetik eta anbibalentetik EAEko biztanleek lortutakoak baino puntuazio handixeagoak dituztela, eta, aldiz, uzturen taldeak jarrera negatiboeagoak dituela EAE osokoak baino.

## Taldeen neurria, 2023


Donostia

■ G.Tolerantea ■ G.Anbibalentea ■ G.Uzkurra



EAE

■ G.Tolerantea ■ G.Anbibalentea ■ G.Uzkurra



Azkenik, Donostiako taldeen tamaina aztertzen badugu, ikusiko dugu toleranteak biztanleriaren % 32 inguru direla, anbibalenteak % 53, eta uzkurak, azkenik, % 15.

EAE osoan lortutako emaitzekin alderatuta, ikusten dugu Donostiako toleranteen taldea EAEkoa baino txikiagoa dela; baita uzkurren taldea ere, Donostiakoa ez baita EAEkoa bezain jendetsua. Alabaina, anbibalenteen taldea dezentez jendetsuagoa da Donostian EAE osoan baino.



# 9


## Ondorioak

## Horrez gain, ondorio hauek nabarmendu ditzakegu:

1. EAE mailan gertatzen den bezala, donostiarrek ez dute arazo gisa ikusten atzerriko immigrazioa. Arazo nagusiak ekonomikoak dira, etxebizitzarekin edo herritarren segurtasunarekin lotutakoak. Gainera, EAErekin alderatuta, azken bi arazo horien pertzepzio handiagoa hautematen da. Barrutika,
2. Atzerriko biztanleriaren bolumenari buruzko pertzepzio handiegia dago. Oro har, gehiegizko dimentsionamenduranzko joera ikusten da atzerriar gehiago dauden barrutietan.
3. Gainera, EAEn gertatzen den bezala, Donostiako biztanle gehienek uste dute datozen 5 urteetan atzerriar jatorriko pertsonak hirira iristen jarraituko dutela. Horrela, herritarrak hasi dira onartzen migrazio-fenomenoa eta aniztasuna ez direla koiunturazko gertakari bat, baizik eta gizartearen egiturazko beste ezaugarri bihurtu direla. Donostiarren ustez, migrazio-hazkundera batez ere Magrebetik, Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta Latinoamerikatik iritsiko da.
4. Donostian bizi diren biztanleek uste dute immigrazioak ondorio positiboak dituela euskal gizartearen. Era berean, ez dute uste etorkinen etorrerak euskal hizkuntzari, kulturari edo nortasunari eragin diezaiokeenik.
5. Euskal gizarte osoak uste duen moduan, Donostiarren ustez, hezkuntza eta osasungintza-eskubideek unibertsalak izan behar dute. Hala ere, hiriko bizilagunentzat paperak izatea funtsezkoa da beste eskubide eta zerbitzu batzuk eskuratzeko: esaterako, DSBE, laguntza juridikoa, familia berrelkartzea, babes ofizialeko etxebizitzak eta botoa. Oro har, jarrera murriztaileagoak daude ekialdeko barrutian, eta unibertsalagoak iparraldeko eta mendebaldeko barrutietan.
6. Bizikidetzaren ereduak dagokionez, oro har, hirian bizi diren biztanleen jarrera asimilazionista da, eta uste dute atzerriarrak direla tokiko ohituretara egokitu behar direnak eta ahalegina egin behar dutenak. Hala ere, ikusten dugu adostasun handia dagoela ideia honekin: bertako pertsonen eta atzerriarren artean ahalegin bateratua egin behar dela bizikidetzarako. Barrutien arabera, posizio asimilazionista hedatuago dago ekialdeko barrutian.

## Horrez gain, ondorio hauek nabarmendu ditzakegu:

7. Jatorri desberdinekiko sinpatia-mailaren rankinga EAE osokoaren antzekoa da: Europar Batasunetik eta jatorri latinoamerikarretatik (Argentina, Nikaragua, Honduras eta Guatemala) etorritako biztanleak dira sinpatiarik handiena sortzen dutenak. Aitzitik, Errumania, Maroko, Aljeria edo Magreb dira balorazio txarrena jaso dutenak. Era berean, Islamarekiko konfiantza ere apala da.
8. Hirian tolerantzia-maila handiagoa dago ohitura kultural orokorragoen aurrean; adibidez, janari exotikoko jatetxeak irekitzearen, beren dendak irekitzearen edo beren elikadura-establezimenduak edukitzearen aurrean. EAEn gertatzen den bezala, tolerantzia apalagoa da ohitura kultural sakonagoez ari garenean; esterako, beren erlijioetarako tenpluak eraikitzea, jatorrizko herrialdean bezala jantztea edo ikastetxe propioak izatea. Oro har, mendebaldeko barrutiak tolerantzia handiagoa du kultura ohitura horiekiko, eta onarpen mailarik txikiena, berriz, ekialdeko barrutian dago.
9. Jantzkerari dagokionez, onarpen handiena tunika, hiyab edo tankerako jantzietan aurkitzen dugu, eta gehienek burka edo nikaba arbuiatzen dute. Alde horretatik, donostiarrak ez dira EAEko biztanleriatik bereizten. Barrutien arabera, ekialdeko barrutiko bizilagunen artean jantzi horien onarpen maila apalagoa da.
10. Immigrazioari buruz hirian errotuen dauden estereotipoak edo "zurrumurruak" prestazio ekonomikoen sistemaren gehiegizko onurarekin lotuta daude, baita delinkuentziaren gorakadarekin ere.
11. Donostiako bizilagunek lan kontratuekin lotzen dute etorkinak hirira iristea. Hala ere, biztanleriaren erdiak baino gehiagok ez du uste delitu bat egin izana hiritik kanporatzeko arrazoia denik eta gehienak ez daude ados etorkinak langabezian geratuz gero, horiek kanporatzearekin. Posizio permisiboena iparraldeko barrutian ikusten dira, eta ekialdeko barrutian, aldiz, aukera murriztailegoen alde egiten duen biztanleriak pisu handiagoa du.
12. Donostiarren tolerantzia indizearen balioa 66,73 puntukoa da, EAE osoko balioaren oso antzekoa (66,36). Bolumenari eta bizikidetzari buruzko pertzepzioaren indizeetan lortzen dute donostiarrek puntuaziorik txarrena. Beste muturrean, puntuaziorik altuenarekin, immigrazioa arazo gisa ez ikustearen pertzepzioa dago, hau da, herritarrentzat, atzerriko immigrazioa ez dela arazo bat. Mendebaldeko eta iparraldeko barrutiek tolerantzia-maila nabarmen handiagoak dituzte ekialdeko barrutiak baino, azken horrek tolerantzia balio askoz ere apalagoa baitu. Hegoaldeko barrutiak tarteko puntuazioa du, eta ez da lehenengoetatik ez bigarrenetik bereizten.



ikus  
pegi

Immigrazioaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de Inmigración